



Euskararen OLATUA...



...hilaren 24rako



MULTIOPTICAS
1.A ZERBITZU OPTIKOETAN
www.multiopticasgipuzkoa.com



J. Carlos Guerra 1
Tel. 943 79 39 95
ARRASATE

Ibargatol 16
Tel. 943 76 75 75
BERRAZA

O'Neira 15 - GROS
Tel. 943 32 66 48
DONOSTIA

Bidebarrieta 2
Tel. 943 26 05 32
EIBAR

Koldo Mitxelena, 7
Tel. 943 51 78 11
ERROTZUELA

Mendiola M. G.
Tel. 943 53 89 61
IRUN

J.M. Barandiaran Ego.
Tel. 943 68 98 68
ORDIZA

San Frontasko 28
Tel. 943 65 84 73
TOLOSÁ

Dentistak

T. Anitua 16, behe
Tel. 943 20 73 57

AMAZA

HORTZ KLINIKA

ARAT Hartz Klinika

Hartz-osasuneke profesional taldea zure zerbitzura

Hartz, konpainia eta konfiantza handiak lortzeko zentroa...

943 20 18 61

... 15 urte eibartarren irribarra pizten

Bista Eder

CLINICA DENTAL • HORTZ KLINIKA

Bista Eder, 19 - behea

Tel. 943 70 00 82
943 20 84 75

- ✓ Implanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hartz-estetika

grupo innova dental

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara

EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17

IRAZABAL Hartz-Klinika

J. Irazabal, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK
Ortodontzia - Protesiak - Implanteak
Hartz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

ABANTAILAK
- DESKONTU BEREZIAK:
- Mutua eta Aseguruak, enpresak...
- IMQ

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.
Tel. 943 208552

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO

UNTZAGA
hartz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

OSASUN

Dietetika

Nutrizio eta Dietetika Zerbitzua

Nutrieibar

Aurora Cid

Larregizko pisua eta obesitatea
Umeen obesitatea
Nutrizio-berreziketa
Dieta pertsonalizatuak

Kontsulta astearte eta ostialetan
Ordua hartzeko: 647 823 971
San Agustín, 2-4
Bulegoak / Lokala

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekupeketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato Eibarries

Errehabilitazioa eta Fisioterapia

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58

Estetika klinika

Zer behar duzu

- LIPOSUKIZIOA
- BLEFAROLASER
- PEELING
- COUPEROSIS
- MESOTERAPIA
- BOTOX
- ZELULITISA (LPG)
- BARIZEAK (LASER)
- AKNEA (LASER)
- KOKOSPEAREN EZABAKETA
- TATUAIAREN EZABAKETA
- EZPAINEN PUZLUKETA
- ZIMURREN EZABAKETA
- DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

CLÍNICA ESTÉTICA ABONTZA

943 20 60 44

Egiguren, 6 - behea www.clinica-abontza.com

R.P.S. 196/07

Fisioterapia

FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA
MASAJE TERAPEUTIKOA

C.F. Errasti

705 Koleg. zkia.

Zuloagatarren, 7
Tel. 605 71 49 88 / 943 70 15 61

OSKAR LOPEZ DE GUERENU

18 Kolegiatu zbkia.

FISIOTERAPIA GUERENU

EIBARKO TXIKITO, 12
BEHEA ESKUMA
TEL. ETA FAXA:
943 12 14 80

FISIOTERAPIA

ENEKO MAILAGARAI

901 kolegiatu zkia.

San Agustín, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

Manu Sánchez

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Juan Gisasola, 14
Telefonoa: 943 12 70 78

MUGI
FISIOTERAPIA

Eider Mugica Aristondo

669 735 925

Egigurentarren, 18

Kirol medikuntza

KIROL MEDIKUNTZA


Andartu

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Estortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Kontsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTITAKO MUTUA ETA ASEGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16



goda

Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

OKULISTAK

EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuetea
Tfnoa: 943 20 19 82

**Clínica Oftalmológica
RECALDE**
Oftalmologi Klinika

Plaza Barria, 2 - 2º
Tfnoa: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Ortopedia

**ARRATE OR-
TOPEDIA**

ORTOPEDIA TEKNIKARI TITULATUA

Oin unitatea ordenagailu bitartez
Tailer teknikoak
Kirol medikuntza
Laguntza teknikoak

HELBIDE BERRIA:
Urkizu, 11 (Euskadiko Kutxaren ondoan)
Tel./Faxa: 943 70 06 31
ortopedia@ortopediarrate.com
www.ortopediarrate.com
OSAKIDETZA eta LAGUN ARONekin egiten dugu lan

Osteopatak

lasaituz
ESKI TERAPIAK

**OSTEOPATIA
KIROMASAJEA
REFLEXOLOGIA**

Iñaki Azpitarte
ebkez ebeko zerbitzua
659107023
Zezenbide, 1 - behea

Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**
124 kolegiatu zenbakia

943 12 14 93
T. Etzebarria (DOS DE MAYO), 2 - 1.

PODOLOGOA
Erdiko klinika

BIDEBARRIETA 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

Nerea Arregi (123 zenb. kolegiatua)
Rosarito Rodriguez (125 zenb. kolegiatua)
Amagoia Zubizarreta (122 zenb. kolegiatua)

PODOLOGOA

**Mainer
Lopez
Etzebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO
T. ORTOPÉDICO**

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

Ana Oiarzun

- PSIKOLOGIA
- SEXOLOGIA
- BITARTEKARITZA LANAK (bikotea, familia...)

Blas Etzebarria 2 - behea
Telf. 943 20 08 20 Mobila. 635 74 62 50

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

----- (Ume eta helduendako) -----

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoak

T. Etzebarria 10 - 6. ezk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
Artealea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

**UME ETA HELDUENDAKO
PSIKOLOGIA
KABINETEA**

ARRATE GARITAONANDIA

- ESTRESA
- ANTSIETATEA
- DEPRESIOA
- ERLAJAZIOA
- FOBIAK
- ALZHEIMER-TERAPIA
- IKASTEKO TEKNIKAK
- UMEEN ARAZOAK
- AUTOESTIMA
- MEMORIA LANKETA

AURRERA EDIFIZIOA 943 20 22 66
Urtzaile 1, 1. Eskuma 646 233 182

Haur eta Helduentzako
PSIKOLOGIA - PSIKOTERAPIA
RPS: 313/98

*Oscar Mondragon Lili
Yolanda Cuartero
Mikel Diez Oregi*

ORDUTEGIA: 10.00 - 12.00
16.00 - 20.00

Bista Eder 6 - 1. ezk. ☎ 943 70 26 62

Hemen zure tokia izan nahi baduzu
deitu 943-206776 telefonora

*Osaba Iker,
aurten be
kamisetia
nahi dot...*

**maiatzaren
23an SALGAI**



Euskara Elkartea



Euskara Elkartea

ARGITARRATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez
eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Maidar Aranberri

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

(“...eta kitto!”k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskara gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kosta egiten zaigu, ez dugu gazteleran bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatza eta berakatza berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

EGIN EGITTE ALDERA.~ Gauzak fede eta gogo handirik gabe egitea. “Egin egitte aldera jardun eban egun guztian, ezer zuzen atara barik”.

EGIN-AHALAKO EURIA(K) EGIN.~ Euria bota-ahala egin. “Egin-ahalako euriak hartuta mela-mela jo eben hango etxe batera”.

EGINAK EGIN.~ Ahaleginak egin arren, gauza bat lortzen ez denean. “Taillarretan zihar ibilli naiz, baiña, egiñak egiñ, ezin izan dot billau”.

ONIK EGIN EZ .~ Kalte egin. “Euzkixa larregi hartziak ez detsa onik egin”.

IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

OHARRA:


Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera, edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com)

ERREDAKZIOA

asteko esaldiak HEMEROTEKA

“Eroski ez balego, jakien prezioa askoz ere altuagoa izango litzateke. Iaz gure prezioak %2'64 igo genituen, EAE-ko elikagaien KPI-a %7'3 igo zenean. Eroski barik, KPI hori %8an edo %9an igoko zen. Prezioak euren kostoen arabera ipintzen dituztenei begiratu behar zaie, ez guri; gure prezioak berberak dira Donostian eta Madrilén”
(Agustín Markalde, Eroskiko zuzendar nagusia)


“Bioerregai mota orotan neukan fede guztia galdu dut. Klima epeleko laboreen errendimendua oso txikia da. Ikerketa askok ondorioztatu dute biomasaren erabilera energetikorik txarrena bioerregiak ekoiztea dela; are gehiago, biomasa hori gas bihurtzeak emaitza askoz hobeak ematen ditu. Ez diot etorkizunik ikusten”
(Roberto Bermejo, EHUKo Ekonomia Irakaslea)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

 kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Euriborraren igoerak

Euriborrak, hipotekak kalkulatzeko indikatzaile nagusiak, apirila itxi du %4,8 igoeratik gora, 2000ko abendutik hona kopuru handiena denarekin.

Euriborraren igoera ekonomia-erantzatzat une larriak direnean heldu da, ekonomia-aren hazkunderako aurreikuspenak gero eta txarrago doazenean eta, aldi berean, langabezia igotzen doan sasoiari.

Aurreko guztiari energia-aren eta elikagaien prezio altuak gehitu behar zaizkio, horrek inflazioaren etengabeko igoera baitakar; hori dela-eta, Europako Banku Zentrala, ekonomia frenatzen doala ikusita ere, ez da ausartzen interes tipoak jaisten.

Hala ere, analisten aurreikuspenek EBZ-k urteko bigarren sei hilabetekoan interes tipoak jaitsiko dutelakoan daude, petrolioaren prezioak igotzeari lagatzen dihonean.

Interes tipo maila hauekin, erdi mailako hipoteka baterako, adibidez 20 urtera begirako 150.000 eurokoan, hilabeteko kuota 973,85 eurotan geratuko litzateke, orain dela urtebetekoarekin alderatuta 46,85 euro gehiagokoa; horrek urte amaieran 562,20 euro gehiago ordaindu beharra ekarriko luke.

Ikusten denez, denbora gaiztoak datoz gure poltsikoendako, bi aldiz zigortuko gaituzte-eta: alde bate-tik, prezioen igoerarekin eta, bestetik, hipotekarenekin.

Horrelako egoera baten aurrean, jarraitu dezake-zuen aholkua ematera auzartuko naiz: familia gastua-ren plan bat egitea eta horretara egokitzen saiatzea. Familiek ondo baino hobeto jakin beharko genuke zenbat diru daukagun esku artean, larregi ez gastatzeko eta zorretan ez itotzeko.

Tomas Etxaluze

(EUKIKO FINANTZA
AHOULKULARIA)

Ardantzako geltokiaren proiektua aurkeztu dute

Nuria López de Gereñu Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburua Eibarren izan zen astelehenean, Iñaki Arriola alkaterekin batera Ardantzako tren geltoki berrirako proiektua aurkeztzen. Lanak datozen asteotan hasiko dira eta hamabost hilabeteko epean amaitzea aurreikusi dute arduradunek. Epe horiek betez gero, 2009. urteko udazkene-rako geltoki berria martxan egon liteke.

Behin lanak amaituta, trenbi-de bikoitza egongo da Ardantzán, 80 metroko luzearekin. Lanetarako aurrekontua 3,6 milioi eurokoa da. Trenbidearen azpian ataria egongo da, eta bertan egongo diren eskailera edo igogailutik sartu ahal



Ardantzako proiektuaren maketa. 3,6 milioi euroko kostua izango du.

izango da 6 metroko zabalera izango duen nasara.

Lanak dirauten bitartean, behin-behineko nasa San Andres pasealekuan kokatuko dute. Gai horren inguruan, Nuria López de Gereñuk "pazientzia izateko" eskatu nahi die

erabiltzaileei. Bestalde, Eibar eta Elgoibar artean egin nahi dituzten lanak burutzerakoan, 2009an, Ermua, Eibar eta Elgoibar ordu laudenero lotuko dituen tranbia zerbitzua egongo dela adierazi zuen López de Gereñuk.

Berriaren 5. urteurrena

Ekainaren 21ean bost urtebeteko dira Berria egunkaria sortu zela eta, hori gogoratzeko, egun horretan jaialdi handia egingo da Donostiako Kursaal. Hala ere, aurretik hainbat ekitaldi garatzen hasi dira eskualdeka eta Debarrena mailako datorren egue-nean (maiatzak 22) egingo da Eibarren, UEUren egoitza nagusia den Markeskua jauregian,



19.30etatik aurrera. Besteak beste, eskualdeko harpidedunak, akziodunak, gizarte eragileak, kultur ordezkariak eta erakundeetako ordezkariak gonbidatu dituzte eta ekitaldian Berria-ren bost urteak batzen dituen bideoa ikusi ahal izango da. Ondoren, Joanmari Larrartek aurrera begirako erronkak azalduko ditu eta, amaitzeko, mokadua eskainiko dute.

1948an jaioetako enafaria

Zapatuan elkartu ziren aurtur 60 urte bete edo beteko dituztenak egunaren zati bat elkarrekin

jai giroan pasatzeko asmoarekin. Hasteko talde argazkia atera zuten Untzagan eta, ondoren, txikiteoan ibili ziren,

afaltzeko ordua ailegatu arte. Arrate Hotelean afaldu eta, gero, dantzan egiteko aukera izan zuten.



autuan

ZARATARI AURRE EGITEN

Gipuzkoako Foru Aldundiak trafikoaren zarata murritzeko pantailak ipiniko ditu hainbat herritan, horietako batzuk Eibarren, N-634 errepidearen inguruan. Horrelako pantailekin trafikoarengatik sortzen den zarata nolabait gutxitzea bilatzen dute eta datozen hilabeteotan horiek ipintzeko lanak hastea aurreikusi dute Diputazioko arduradunek.

DEFIBEL ETA FIBROMIALGIA

Astelehenean Fibromialgia eta Astenia Kronikoaren eguna gogoratu zen mundu mailan eta, hori dela eta, DEFIBEL Debabarrena mailan arlo horretan lan egiten duen elkarteak bat egin nahi du gaixotasun

hori duten guztiekin. Datu zehatzik ez dagoen arren, populazioaren %13ri eragiten dion gaitza omen da. Elkarteak San Andres elizako lokaletan egiten du lan eta laguntza behar duen edozeini laguntzeko prest daude. Informazio gehiagorako 696187970 telefono zenbakira deitu daiteke.

AUTO-LAPURRA

Aurreko astean 32 urteko gizona atxilotu zuen Ertzaintzak Eibarren: bereak ez ziren autoak beste batzuei saltzea leporatzen diote. Badirudi salgai zeuden autoen jabeekin harremanetan ipini eta autoa erosteko interesa zuela erakusten zuela, gero dokumentazioa eskuratu eta autoa beste batzuei saltzeko.



Aldaketarengatik

Felipe Gonzalezek 1982. Furtan hauteskundeak irabazi zueneko kanpainaren leloa da izenburukoa.

Gipuzkoako sozialistek asteburuan aukeratuko dute Eibarko alkatea —ezusteko handirik ez bada—. Idazkari Nagusi berria izateko. Iñaki Arriolak adierazi du bere kargu berrian ezingo liokeela alkatetzari eutsi. 25 urteko ibilbidea itxiko da horrela, horietako gehienak hiria gobernatzen.

Arriolak erakutsi du inork baino hobeto ezagutzen duela udalerriri dagokion guztia, ematen dituen aukerak aprobetxatuz eta bere aurkari politikoen ahuldadeak antzemanaz. Bere ibilbidearen inguruko balorazioa egin dezakegu, baina epaia eman dute honezkero eibartarrek hauteskontzietan.

Orain, Gipuzkoako eta Euskadiko politikan, beste aurkari batzuk eta beste in-dar batzuk aurkituko ditu. Baita beste modu eta jarrera batzuk ere. Aurretik dauka azken Hauteskunde Orokurretan sozialistek lortutako emaitzak finkatzeko ardura. Zeregin zaila.

Miguel de los Toyos izango da bere ordezkoa. Ia hiru urteko alkatetza du zain, usufruktuan, ez zelako zerrendaburu aurkeztu. Oposizioak aprobetxatuko duen aukera.

Inork ez du zalantzan jar-tzen ez bere gaitasuna ez prestakuntza, baina politikan bada neurtu ezin daitekeen eta oso garrantzitsua den faktore bat: zerikusi gehiago du sedukzioarekin, emozioekin, hiritarrek in-kektatzeko gaitasunarekin, batez ere normalean beste batzuei botoa ematen dien hiritarrek. Hori da bere erronka nagusia.

Jose Luis Martin
(KAZETARIA)



EKHI BELAR

Atentatuaren kontrako kontzentrazioa

Atzo eguerdian eibartar askok bat egin zuen Udal ordezkariekin udaletxe parean, Legution eguazten goizaldean izandako atentatua eta haren ondorioz hildako guardia zibilaren heriotzaren aurrean euren gaitzes-

pena azaltzeko. Legutioko Guardia Zibilaren koartel parean lehergailuz beteta zegoen furgonetak eztanda egin zuen eguazten goizaldean eta, koartela txikitzeaz gain, eztrandak han zegoen Juan Manuel Piñuel guardia zibila hil zuen.

...eta kitto!-ri buruzko deiak

Aztiker enpresako inkestatzailleak ...eta kitto! astekariari buruzko galderak telefonoz egiten hasiak dira. Denera 900 etxebizitza aukeratu dute astekariari buruz herri-tarren iritzia zein den jasotzeko asmoarekin. Inkestari erantzuteko 10 minutu baino ez dira behar eta, hortik jasotako emaitzei esker, produk-

tua hobetzeko eman beharreko pausuak zehazten lagunduko digun informazio oso baliagarria eskuratuko dugu. Zuetariko askok paper bidez erantzun duzuen inkestak espero baino erantzun hobeia izan du eta telefono bidezko inkestatzailerekin ere zuen erantzuna halakoa izatea alde z aurretik eskertu nahi dizuegu.

Agenda 21 esperientzia Galizian

Debegesak A Coruñan egin berri den 'Eskualdeko Agenda 21en inplantaziorako esperientzia arrakastatsuak' izenburuko jardunaldian parte hartu du. Jardunaldia Galizia-ko CEIDAK (Centro de Extensión Universitaria y

Divulgación Ambiental) antolatu du, hainbat erakunderen laguntzarekin.

Garapen Iraunkorreko Sailaren arduradunak Debabarreneko esperientzia aurkeztu zuen eskualdeko Agenda 21 esperientzia arrakastatsuen atalean. Jardunaldian beste hainbat esperientzia ere aurkeztu zituzten, hala nola A Coruñakoa, Els Ports-eko eskualdekoa edota Castelló-koa. Denera 35 erakundek eta ingurugiro arloko 10 bat zinegotzik hartu du parte jardunaldian, tokiko administrazioko arduradun eta udalaz gaineko erakundeetako ordezkari ugarirekin batera.



Eibarko WIFI mapa osatzen

UNI Eibar-Ermuako Informatikako 30 bat ikasle Untzagan batu ziren atzo goizeko 10.30etan Eibarko WIFI mapa osatzeko asmoarekin. WiFi-a aurkitzeko gaitasuna duen edozein hardward eskuan zutela abiatu ziren ikasleak herriko kaleak arakatzen, WIFI sare ireki edo itxiak non dauden bilatzeko asmoarekin.

Gorka Goenaga irakasleak aipatu zuenez, *"Eibarko hiritar guztientzako Internet mapa bat egin nahi dugu"*. Jasotako emaitzak www.tagzania.com webgunean zintzilikatuko dituzte. Hala ere, Goenagak aipatu bezala, *"hau misioaren lehen zatia baino ez da"*.



30 bat ikasle batu ziren Untzagan WIFI mapa osatzeko.

Merkataritza ordezkariak Malagan

Eibarko merkatarien ordezkari batzuk Malagan izan berri dira, lehenengoz egin den Herri Barruko Merkataritzaren inguruko kongresuan parte hartzen. Julita Valenciaga (Eibarko Dendarien Elkarteko lehendakaria), Mertxe Garate (Industria-Merkataritza zinegotzia eta Eibar Merkataritza Irekia-ko lehendakaria) Ramon Telleria (Udaleko Hirigintza eta Obra saileko teknikaria), Carmen Larrañaga (Industria-Merkataritza batzordeko kidea) eta Leire Ojanguren (merkataritza teknikaria) herriko merkatarientzat interesgarriak izan daitezkeen esperientziak ezagutzen ibili dira Malagan, besteak beste Errebalgo merkataritza gunea eta El Corte Inglés berria buruan.



Eibarko merkatarien ordezkariak Malagan.

Ezker abertzalearen jaialdia

Eibarko Ezker abertzaleak hainbat ekitaldirekin ospatzen dihardu bere astea: martitzenean hasitako ekitaldiak bihar amaituko dira, egun osorako programazioarekin. Gaur arratsaldean 'Gazteak independentzia!' izenburupean pegatina erakusketa eta etxebizitzaren egoera agerian lagatzen dun 'Kaiolatik at' DVDaren aurkezpena egingo dira Montekasinoko parkean, 19.30etako presoen aldeko enkartelada eta gero. Bihar 12.00etan umeendako pailazo saioarekin



Martitzenean arratsaldean azken atxiloketel buruzko balorazioa egin zuen ezker abertzaleak.

hasiko da eguna Monteka inguruan: Kike eta Harri pailazoez magia, koko-jantzi eta bestelakoak tartekatuko dituzte. Ordubete geroago ekitaldi politikoa egingo da eta 13.30etan triki-poteoa hasiko da. Ordubete geroago herri bazkaria egingo da eta bazkal ostera hainbat joko eta

musika ikuskizun prestatu dituzte. 18.30etatik aurrera Josu Gil-ek kantaldia eskainiko du eta 20.00etan Beñat Garate disko-jartzailearen txanda ailegatuko da. Jaialdia gauerdian amaituko da.

Atzegiren kanpaina berria

Adimen urritasuna dutenekin lan egiten duen Atzegi elkarteak sentsibilizazio kanpaina berria ipini du martxan: 'Lantokian, ikusiko duzu!' izenburuarekin lagun hauek hainbat lan egiteko gauza badirela

agerian laga nahi dute Atzegitik, gizarteari jende honi lan egiteko aukera emateko eskaera luzatzearekin batera. Kanpainari eta elkarteari buruzko informazio zabala www.atzegi.org helbidean aurki dezakezue.



Arraindikalekoen bazkaria

Gaur egun izen horrekin kalerik ez daukagu, baina orain urte batzuk Arraindikale kaleak oraingo Zuloagatarren eta inguruak hartzen zituen eta han jaiotako hainbat lagun urtero batu ohi dira, aspaldiko kontuak gogoratzeko. Chalcha jate-txean izan zuten hitzordua zapatuan eta umore onean eman zuten eguna.



DIA DAS LETRAS GALEGAS e g i t a r a u a

BARIXAKUA

19.00.- Galiziar jai Batzordearen tabernaren irekiera ofiziala. Repichoca eta Os Galaicos taldeen kalejira. Herri kirolak: Ernesto Ezpeleta 'Bihurri', Jesus Gisasola 'Zelai' eta Hodei Ezpeleta aizkolariak eta Juan Jose Unanue 'Goenatxo II.a' eta Jon Unanue 'Goenatxo III.a' harrijasotzaileak. **21.00.-** Trovadores orkestraren kontzertua, goizalderarte. Urkizun.

ZAPATUA

11.30.- Umeendako txabe jaurtiketa (8-13 urte). **12.30.-** Igel-toka. **16.00.-** Txabe jaurtiketa, nagusientzat. **18.00.-** Os Galaicos (Eibar) taldeak Doces Lembranzas (Barakaldo) taldeari ongetorria. **18.30.-** Galiziako musika eta dantzak. 23.00.- Berbena, goizalderarte, Leticia orkestrarekin. Urkizun.

DOMEKA

11.00.- Hildakoen aldeko meza (Karmengo Amaren elizan). **11.45.-** Os Galaicos taldearen ongetorria Eibarko Trikitilarietara, Untzagatik Urkizura kalejira. **12.30.-** Azahar sevillana taldeari ongetorria eta dantza erakustaldia. **15.00.-** Bazkaria (Batzokian). **18.30.-** Superfama orkestrarekin dantzaldia. **22.00.-** Jai batzordearen tabernaren itxiera. Urkizun.

Galleguen jaixak 25 urte egitten dittu

Urkizuko parkia izango da, urtero lez, gure herriko Galiziako Etxiak antolatutako jaixetako ekitaldi gehixenen gunia. As Burgas bazkidien zentrua be hor behian dago eta, beraren inguruan batzen diran artian, urtengo dabe jaixotan laguntzen jardungo daben bolondresak. Ekitaldixak gaurtik domekara arte iraungo dabe eta kontzertuak, dantzak eta Galiziako produktuak dasta-

tzeko okasiño paregabiak (olagarrua, enpanadak, ribeirua, albariñua) osatuko dabe egitarauaren zatirik garrantzitsuenak. Herri-kirolak be ez dira faltako eta, gaur bertan, Bihurrik eta Hodei bere seme txikiak aizkoran emango dabe ikustaldixa, Zelairekin batera, harri jasotzen Goenatxo II.ak eta III.ak jardungo daben bittartian.

Kontzertuak be egunero izango dira, hiru orkestekin: gaur (Trovadores) eta bihar (Leticia) gabaz, eta etzi arratsaldian (Superfama). Jaixotako beste protagonistetako bat Os Galaicos Casa Galiciako folklore taldia izango da; domeka goizian, trikitilarixekin eta Azahar sevillanen taldiarekin Urkizun batuko dana. Jokuendako be tartia izango da (chaves eta igela), beti be urteroko anaitasunezko bazkarixa eta hildakuen aldeko mezia ahaztu barik. Egitarau betia, azken batian.



AMAILA JAKO

Dantzak eta musika girua izango dira Urkizun.

Abontza: jaixetan be langille fiñak

Gaur hasi eta biharko egun betia prestatu dabe Abontzako jaixak antolatzen dittuenak. Auzo horrek gero eta jai gehixago ospatzen dittu, edozein sasoi dala, gaiñera: udaberrixan izan edo udazkenian. Gaurko txupinazuaren ondoren, umientzako antzerkixak eta lehelengo aldiz antolatzen dan abestixen letria asmatziaren jokuak beteko dabe programaziñua. Bixar, bestalde, umiendako jokuekin batera, txistorradia, txikiteua, paella erraldoia... parte hartzaillien tripia betetzeko. Arratsaldian be ez aspertzeko moduko programaziñuadake: karaokia, toka eta igela, txokolatejana, Gorritiren animalixak... eta ber-



benia. Eta, Son Berriaren ondoren, Voces y Cuerdas herriko taldiaren aktuariñua, barriz be Son Berriarekin amaitzeko. Zeiñek emoten dau gehixago?

ABONTZAKO JAIXAK

e g i t a r a u a

BARIXAKUA

18.30.- Txupinazoa eta suziariak. 'Erbia eta dorka' umeentzako antzerkia euskeraz. **22.00-etatik 01.00etara.-** 'Hitzez hitz-Te sabes la letra' lehiaketa. Egiurentarreneko parkean.

ZAPATUA

11.00.- Suziriak. Buruhandiak. **11.30.-** Umeentzako jolasak. **12.30.-** Txistorra jana. Txikiteoa. **14.30.-** Herri-bazkaria (paella erraldoia). **17.00.-** Karaokea. Toka eta igel-toka txapelketa (Ipuruako jubilatuek etxearen atarian). **18.00.-** Txokolate-jana nagusientzat (Ipuruako jubilatuek etxean). **19.30.-** Gorriti eta bere abereak. Txapelketako sari-banaketa. **22.00.-** Berbena, Son Berriarekin. **23.00.-** Voces y Cuerdas taldearen emanaldia. **00.30.-** Berbena, Son Berriarekin. Egiurentarreneko parkean.

DOMEKA

11.00.- Auzoko hildakoen oroimenezko meza. San Pio X.a elizan.

Radio
Eibar

CADENA

SER2

104,0 FM

KATU

KALE

TABERNA

BIDEBARRIETA, 1

Kontseiluak 10 urte betetzen ditu aurten eta, hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu da Euskal Herri osoan, urteurrena ospatzeko asmoarekin. Eibarren maiatzaren 24an gogoratuko da urtemuga, 500 lagun euskararen aldeko giza-katean batuta: 'Tantanez tantan, Eibarren euskaraz blai!' leloari jarraituz, Urkizuko iturrian gantxil bat urez beteko da eta giza-katea osatuko duten lagunak eskurik-esku eramango dute, Untzagara ailegatu arte. Ibilbidea osatzeko 500 lagun batzea behar da eta ekitaldia antolatzen diharduten Eibarko Euskalgintzatik jendea animatu nahi dute, ekitaldian parte hartu eta euskarari baietz esatera.

EIBARKO EUSKALGINTZAK EKITALDI BEREZIA PRESTATZEN DIHARDU MAIATZAREN 24-RAKO

Euskararen aldeko olatua Urkizutik Untzagara

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak 'Euskaraz bai' leloa Euskal Herriko txoko guztietara zabaltzeko ahalegina egiten dihardu aurten, bere sorreraz geroztik 10 urte beteko direla gogoratzeko asmoarekin. Hamarkada honetan Kontseiluak Euskal Herriko hainbat txokotara ailegatzea lortu du eta gaur egun 121 herritan egiten du lan. Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkariak begirada atzera bota eta gaur egun Kontseiluak betetzen duen toki gogoan, hala egiten zuen berba urtemugaren aurkezpenen: "Orain dela 10 urte 'Bai euskarari' kanpainarekin hasi ginenetik lan ikaragarria egin dugu, hasi ginenean nork esango zigun 'Bai Euskarari' kanpaina herrietan barreiatze-



ko 200 batzorde sortzea lortuko genuela?".

Eibarren ere horrelako batzordeak asteak daramatza lanean, Kontseiluaren sorreraren 10. urtemuga ospatzeko ekitaldi berezia antolatu nahian. Horretarako, Eibarko Euskalgintza osatzen duten taldeetako ordezkariak (AEK eta Udal euskaltegiak, Juan Antonio Mogel ikastola, herriko ikastetxeak, Euskal Herrian Euskaraz, Ignazio Zuloaga Institutua, Badihardugu Elkarteak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta beste hainbat) hainbat bilera egin dute, maiatzaren 24an, datorren asteburuan ekitaldi berezia ga-

ratzeko behar den guztia prestatzeko.

500 laguneko giza-katea

Ekitaldia 12.30etan hasiko da Urkizun eta asmoa Untzagaraino urez betetako gantxila eramatea da, horretarako giza-katea osatuta. Urkizu eta Untzaga bitartean dagoen distantzia betetzeko 500 bat lagun batzea beharko dela aurreikusi dute antolatzaileak eta, horregatik, ekitaldia arrakastatsua izateko jendea parte hartzea animatu nahi dute informazio gehiago nahi izanez gero, aipatutako taldeetako ordezkariaren batekin berba egin daiteke. Parte har-

tzeko, aipatutako orduan giza katearekin bat egitea nahikoa izango da. Hala ere, antolatzaileek jendea koadrodun zapia lepoan eramateko eskatzen diete, nolabaiteko talde-itxura emateko. Urez betetako gantxila Untzagara ailegatzearan, Javier Mandiola 'Manix' Eibar foball taldeko entrenatzaileak Kontseiluaren adierazpena irakurriko du. Giza-katearekin euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatuko da egun horretan.

'Euskaraz bai' adierazpena

Manix-ek irakurriko duen adierazpena iazko abenduaren 19an Bilboko Euskalduna Jauregian egin zuten ekitaldi sozialean aurkeztu zuten 'Euskaraz bai' adierazpena izango du oinarri. Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak osatutako dokumentu honek, euskararen egoeraren azterketa eta etorkizunaren erronkak azaltzen ditu, helburu jakin eta zabalarekin: "Euskararen normalizazioaren ahaleginean batera jarduteko gonbita luzatuko diegu gizateragileei, erakundeei eta jendarteari, oro har".

Bestetik, 'Bai euskarari'-tik 'Euskaraz bai'-ra eman nahi duten jautzia ere azaldu nahi izan dute: "'Euskaraz bai' zikloa hasi nahi dugu. Hamar urte pasa eta egin dugun lanaren ondoren, gero eta garbiago ikusten dugu euskarak aurrera egingo badu zerbait gehiago behar duela, atxikimenduaz eta alde-kotasunaz gainera, batez ere euskarak behar duena da ikasia eta erabilia izatea, herritarrek 'Euskaraz bai' esatea, alegia".




MAIATZAREN 24ko ekitaldian parte hartzea animatzen dituzte elbarrak euskalgintzako taldeek. Parte hartzeko harremanetan jarri behar da taldeetako batekin.



Naziño Batuen Erakundiaren Elikagaixen Munduko Programak laguntza dei bat luzatu dau: 500 millioi dolar bihar dittu, euren elikagai eta diru erreserbak amaitzen dagoz-eta. Holan, ez badau diru kopuru hori lortzen denbora gitxian, programa horrek elikatzen eta laguntzen dittuan millioika pertsona gosez hilko dira. Beti esan da munduko elikagaixak txarto banatuta euazela, baiña FAO-k esaten ebanez danondako janarixa euan

munduan. Zelan heldu gara egoera honetara? Elikagaixak merkiaguak ziran. Kausa asko dagoz elikagaixen garestitze horren atzian. Petroliua biokonbustibiliengaitxik aldatzeko nahixa da kausetako bat, holan, artua gizaki eta animalixak elikatzeko biharrian, etanol fabriketara bideratu zan, eta horren antzera, garixa. Arrazoi honengaittik eta beste batzuegaittik, prezixuak %100ian igo dira azken urte bixetan. Halanda be, esplikatzeko gatxena arrozak 2008ko lehen hillabetietan euki daben gorakadia izan da. Igoera horren arrazoa espekulaziñua da. Adituek esaten daben moduan, prezixuen igoera honekin eta elikagaixen inguruan munduan dagan krisixakin amaitzeko espekulaziñuaren aurka eiñ bihar da.



Jose Lamariano **77 urte, jubilaia**

Ba ez dakitt zergaittik igotzen diran elikagaixen prezixuak, baiña ixa seguru nago engaiñatu egitten gaittuela holako kontuekin. Dana igotzen doa denbora aurrera doian heiñian, halanda be, dana igotzen bada soldatak be igo eiñ biharko ziran, gauzia parekatzeko.



Milagros Parada **69 urte, etzekoandria**

Zapaterok azaldu biharko zeban zergaittik igotzen diran prezixuak, eta arazua konpondu biharko leuke, guk gitxi eiñ geinke. Kulpia boterian daguazena da, ez guria. Nik prezixuak jaitziko nittuzke, baiña ezin dotenez, aguantatzia bakarrik gelditzen jata.



Elena Taboada **36 urte, bihargiña**

Ba neri begittantzen jata Gobernuak ezartzen dittuala elikagaixen prezixuak, dana garestitzen doa eta guretako oso kaltegarrixa da hori. Oso txarto dao oiñarrizko elikagaixen prezixuak igotzia, eiñ bihar zebena zan soldatak be igotzia, holan ez zalako hainbeste igarriko.

***Zegaitxik uste dozu
igotzen dirala
elikagaixen prezixuak?***



Braulio Sainz **56 urte, operarixua**

Neri begittantzen jata inflaziñuan ondorixua dala, inflaziño oso haundixa dagualako, eta nahiz eta Eroskik esan eurrek ez dakela kulparik, neri begittantzen jata holako enpresa haundixek kulparen zati haundixena dakela. Langile baten ekonomixarendako kalte haundixa egitten dau prezixuen igoeriak.

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

2+ MAIATZA-REN

25-EAN

ZORNOTZAN

ibilaldia
ZORNOTZA 08

AUTOBUSA

Irteera: 09,30etan, Ego Gaietetik
Buelta: 19,30etan
8 eurotan

J.A. Mogel Ikastolako Guraso Elkarte / ...eta kitto! Euskara Elkarte

“Guretzat kontzertuak jai bat dira”

Aurreko hiru diskoetan sekulako arrakasta lortu ostean, ‘Argiak’ diskoa kaleratu zuen Ken Zazpi musika talde bizkaitarrak Durangoko Azokan abenduan. Los Angelesen grabatu eta ekoiztako lan berri honekin Euskal Herriko eta Kataluniako plaza, areto eta antzokiak betetzen ari dira gernikarrak.

- Laugarren diskoak bost hilabete daramatza kalean. Nolako harrera izan du?

Sekulako harrera ona izan du. Durangoko Azokarako atera genuen eta azokan bertan ikusi genuen jendea disko ‘gosez’ zegoela. Egia esan, guk lan handia egin dugu eta beti ipintzen duzu ilusioa egiten duzun hortan, baina ez genuen espero hain azkar jendeak hain ondo erantzutea. Hori zuzenekoetan ikusten da, jendeak oso ondo erantzuten duelako, guretzat kontzertuak jai bat dira eta gozatu egiten dugu. Zentzu hortan oso harro gaude.

- ‘Argiak’ da diskoaren izenburua. Zerbait iradoki nahi izan duzue horrekin?

Bai. Guretako argiak itxaropenak dira. Itxaropenak kolore eta tonalitate asko ditu, horrela, saiatu gara diskoan tonalitate guzti horiek adierazten, oinarri moduan itxaropena hartuta. Soinuaren bidez itxaropena transmititzen ahalegindu gara, baina konturatu gara guri argi hori transmititzen diguna publikoa dela. Gure benetako argiak, izarrak,

eurak dira.

- Nolako da diskoa?

Uste dut diskotik diskora asko arriskatzten duen talde bat garela. Disko bakoitza erronka berri bat bezala hartzen dugu eta ahalegintzen gara pauso berriak ematen. Ez gara musikatik bizi eta horrek nolabaiteko askatasuna ematen digu, benetan nahi duguna, nahi dugunean eta nahi dugun eran ateratzeko. Aurreko urteetan ikasitakoa kontuan hartuta eman ditugu pausoak, baina pauso berriak ere eman ditugu, eta gure jakinminak eta musika egiteko modu berriak nondik nora dabiltzan ere isaltzen saiatu gara. Hau da, aurreko gauzak bildu ditugu eta etorkizunean egingo duguna ere nabaritzen dela uste dut. Oinarri oso gogorrak eta kantu oso melodikoak, hori da gure ezaugarria.

- Los Angeleseko Rafa Sardinaren estudioan grabatu dituzue abestiak. Nolako esperientzia izan da?

Bai maila pertsonalean, bai talde moduan, oso esperientzia ona izan da. Alde batetik, hemendik irtetzea eta kanpo-



an zerbait egitea, eta kanpoko batek objektibitate edo hostasun batekin zure lana neurtzea, bere iradokizunekin, oso interesgarria da edonorentzako. Eta bestetik, Rafa Sardinaren mailako gizon batekin lan egitea zoragarria izan da, 18 urte daramatzalako han eta jende askorekin egin duelako lan, sekulako taldeekin. Record Plant estudiotein egin genuen lan, garai batean Jimmy Hendrix eta Rolling Stonesek lan egin zuten estudio berdinean.

- Jarraitzaileen artean baze- goen beldur antzeko bat Estatu Batuetako esperientzia honek zuen esentzia aldatu- ko zuela. Horrela izan da?

Oso argi geneukan gure izaerari eutsi behar geniola eta produktorearekin berba egin genuen lehen aldian argi utzi genien kontu hori. Abestiak guk konposatutakoak dira, konponketak ere, baina gero Rafak soinu eta teknika aldetik bere zigilua utzi du.

- Rafa Sardinaz gain, beste luxuzko kolaboratzalle bat izan duzue: Joseba Sarrionandia.

Guri beti gustatu izan zaigu abestien letrak guk egitea, onerako eta txarrerako. Baina horrelako idazle potente baten kolaborazioa izatea, esan daiteke berak tekla batzuk ukitzen dituela guk azaldu ezin izango genituenak. Zentzu hortan gure lana asko aberasten duela uste dut eta guretzako ohore bat izan da.

- Datorren astean Elbarren eskainiko duzue kontzertua. Zer aurkituko du bertara hurbiltzen denak?

‘Argiak’ lanaren aurkezpena egingo dugu batez ere, baina aurreko diskoetako abestiak moldaketa batzuk eginda ere aurkituko ditu jendeak. Lan handia egin dugu, ez bakarrik diskoaren sorreran, baita zuzenekoak prestatzen ere. Horrela, argien diseinu oso originala daukagu eta eszenaratzea hobetzen saiatu gara.



EÑAUT ELORRIETA, KEN ZAZPI-KO ABESLARIA



Azitaingo industrialdean sortzen diren hondakin eta zaborrak batzeko erabiltzen duten sistema eredu izan daiteke beste askorentzat ere, indarrak batzearen ondorioz lortzen den emaitza positiboari begira, behintzat. Eibarko Udaleko Industria sailetik bultzatutako proiektu-pilotoaren berri eman zuen Mertxe Garate buru duen batzordeak. Hondakinak jasotzeko orduan egiten den elkarlanak zerbitzuaren kostua %30 jaitea lortu du.

Azitaingo hondakinen bilketaren esperientzia oso positiboa izan da

Azitaingo industrialdeko enpresetan sortzen diren hondakin arriskutsu eta geldoak jasotzeko zerbitzuaren kostua asko murriztea lortu dute, AFE (Asesoramiento y Formación Eibar) enpresak garatu duen proiektuari esker. Azitainen dauden 30 enpresatik 28k bat egin zuten proiektuarekin (eta bat egin ez zuten biak tokiz aldatzekotan zeudelako eman zuten ezetza). Orohar, Azitainen dagoen industria motak horrelako hondakin gutxi sortzen du, baina legeari jarraituz gero euren ardura da hondakin horien kudeaketa egokia eta, horri aurre egin ahal izateko, diru asko inbertitu behar izaten zuten hondakinen kudeaketa egokia lortzeko.

Baina aipatutako AFE enpresak aurreproiektua aurkeztu zion Udalari eta, horri esker, enpresa guztien hondakinak

batera, aldi batean jasotzen hasi ziren eta, horrez gain, hondakinen kudeaketaren inguruko informazio zehatza banatzen zaie enpresariei.

2.000 kilo lehenengo salakeran

Urtarrilaren 9an egin zuten hondakinen batze-kolektiboari esker, 9 enpresatan 2.000 kilotik gora hondakin batu zituz-

ten Indumental Recycling enpresakoak. Orohar ofimatika produktuak, monitorea eta bestelako gailu elektronikoek osatu zuten hondakinen zatirik handiena. Apirila amaieran Befesa enpresakoek Azitaingo enpresetan 8.000 kilotik gora hondakin jasotzea aurreikusiten zuten.

Esperientziaren arrakasta ikusita, etorkizunean beste in-



Industrialdea osatzen duten 30 enpresetatik 28k bat egin dute hondakinak batera batzeko proiektuarekin.



Hondakin arriskutsuak kudeatzeko orduan, berezitasun batzuk izan behar dira kontuan.

dustrialde batzuetan gauza bera egitea aztertzen dihardute Industria sailean. Izan ere, dirua aurrezteaz gain, asko hobetu daiteke hondakin arriskutsuen inguruko kudeaketa eta garraioa, gauzak ondo lotu eta antolatuta.

Parte hartzen duten enpresak

- Talleres Mecánicos Echean S.L.
- Tornillería Zeta S.L.
- Accesorios CNC-Horma S.L.
- Manufacturas Resort S.L.
- Mecanizados CIMER S.L.
- Mecanizados EISAM S.L.
- Mecanizados LANDA S.L.
- Mecanizados MATXARIA S.L.
- ZALUMI, S.L. UNIPERSONAL
- ENGINE POWER COMPONENTS GROUP S.A.
- ACHA S.L. Herramientas de precisión.
- JAZ ZUBIAURRE S.A.
- ALFONSO GOY, S.L. INPRONE
- ABC (Arizaga, Bastarrica y Cía)
- Tratamientos Térmicos BERO S.A.I.
- SERVICIOS ECOLOGICOS AZITAIN S.L.
- AELVASA
- FRUTAS PILAR E HIJOS
- LUBRICANTES LARRARTE
- CARTONAJES EIBAR S.L.
- DBNET, S.L.
- DEBEGESA
- GREYHOUND S.L.
- HANNA INSTRUMENTS S.L.
- NEURTEK S.A.
- EGASCA S.A.
- SEDESMA (Manufacturas Metálicas Publicitarias)

DENA PREST XLIII. EUSKAL JAIRAKO

Eguaztenian presentauko dabe Klub Deportibuan Eibarko XLII. Euskal Jaixa. Aurten maiatzak eta ekaiñak bat egingo daben asteburuan pillatuko dira ekitaldi nagusiñak, baiña aurretik be Euskal Jaixa girotzen juateko aukerarik ez jaku faltauko. Gaur zortzi Ken Zazpi taldiaren kontzertuarekin hasi eta ekaiñaren 1ian egingo dan arku-dantzen naziñoarteko jaialdixa aillegau bittartian, basarritar jantzixeri hautsa astintzeko sasoiari gagoz.



Datorren barixakuan gabeko 22.00etan kontzertua eskinduko dabe Ken Zazpi taldekuak Coliseo antzokixan. Eibarko Udalak antolatutako kontzertu horrekin abiatuko da aurtengo Euskal jaiko programia. Kontzertu horretarako sarrerak dagoeneko salgai ipiñi dittue interneten, www.kutxa.net helbidian eta Telekutxa zerbitzuetan eta egunian bertan takillan erosteko aukeria egongo da. 19 euro balixo dau sarrerak.

Hurrengo egunian, barriz, Eibarko Euskalgintzaren esku-tik 'Tantanez tantan Eibarren euskaraz blai' izenburuko ekitaldixarekin segiduko dabe ekitaldixak. Eguardixan Urkizu eta Untzaga 500 lagunekin osatutako giza-kataiarekin ba-

tuko dira, esku batetik bestera urez beteta juango dan gantxillaren ibilbidian. Kontseiluaren 10. urteurrena ospatzeko ekitaldixak Euskal Jaixarekin bat egingo dau.

Lore Jokueri buruzko liburua

2008xa urte berezixa be bada gurian. Izan be, Eibarren Lore Jokuak egin zirala 100 urte beteko dira aurtan eta, hori dala eta, hainbat ekitaldi berezi egingo dira urtian zihar. Euskal Jaixa aprobetxauko dabe Udaleko Ego Ibarra batzordekuak argittara emongo daben lehelengo liburu digitalaren aurkezpena egittako: Lore Jokuen mendeurrena aitzakia hartu dau Antxon Narbaiza ikerlari eibartarrak bere azken lanerako. Aurretik hamaika liburu kaleratu dittu Narbaizak, baiña oingo honetan barritasuna izango da bere lanaren euskarria. Izan be, paperian barik amaraunian, hau da, interneten emongo da argittara Euskal Jokueri eskindutako ikerketa-lana. Liburu digitalaren aurkezpenerako, barriz, goi-maillako aurkezlai inbitau dabe Portalaria: Andoni Egaña bertsolarixa. Berak lagunduko detsa egilliari 'Lore Jokuak Eibarren: 1908-2008' lanaren

gaiñeko azalpenak emoteko orduan. Maiatzaren 27xan izango da presentaziñua, 19.30xetatik aurrera Portaleko areto nagusixan.

Asteburu betla

Dana dala, eta azken urtiota-ko joeriari jarraituta, Euskal Jaixaren ardatza osatzen daben



"Filamento Farolaria" Clown Xabi Larreak egindako mimo ikuskizuna da. Hillaren 30ian ikusi ahal izango da Untzaga plazan.



Untzagan kokatuko dan karpan, zapatuko kantu afarixaz eta domekako bazkarixaz gaiñ, hainbat ekitaldi ikusteko aukeria be izango da.

egingo da, Arrate Kultur Elkar-tearen eskutik: 20.30xetan Euskal Jairako propio ipiñiko daben karpan Xabi Larrearen 'Filamento Farolaria' ikuskizunarekin ondo pasatzeko aukera paregabia egongo da.

Artisau eta basarritar azokla

Hurrengo egunian, zapa-tuan, goizian artisau eta basarritarren azokia egingo da, 10.00etatik 14.00etara, Toribio Etxebarria kalia. Eibart alkar-tiak antolatutako ekitaldixak Eibar eta beste herri batzutako artisau eta basarritarrak batu-ko dittu, narrua protagonista izango daben jardunaldixan. Eibarko artisauak 19 postutan egongo dira batuta: Ana Oroz-ko (bisuteria), Arrate Bidasoro (aromaterapia), Iratxe Unanue (pinttautako kamisetak, umiendako), Eskulan (kristala), Elexamendi (narrua), Marta Irusta (bitxixak), Maite Arriaga (pintturak), Jesús Belaustegi

(zeramika), Ione Martínez (pin-ttautako ehunak), Igor Unanue (egurra), Miren Monasterio (bi-suteria), Enrike Zialzeta eta Jo-se Luis Vivar (egurra), Amaia eta Argiñe (xaboia), Nicolás Zurutuza (egurra), Paulino Larrañaga (egurra), Amaia Tellae-txe, Edorta Murua, Maximón (tinte naturalak) eta Debako Arte Eskola.

Kanpoko artisauak, barriz, narrua oiñarri daken produk-tuak ekarriko dittue: Liliana Martínez (Argentina), Larruz (Usurbil), Larrua (Bilbo), Eskuz (Leintz Gatzaga), A Flo De Piel (Iparralde), Trock (Areso), Al-berto González (Gipuzkoa), Juan Elgarresta (Gabiri) eta Fe-lix Barbero (Logroño).

Basarritarrak, barriz, honako basarrixetatik etorriko dira: Be-ña, Barrundi, Mendigoiti, Gisa-sola, Mandiola Gaiñekua, Ze-lai, Zumendixa, Iturrúa, Go-rostixa eta Sosola.

Eguardixan herri kirolak eta bertsolarixak izango di-ra protagonista: harri ja-sotzen 'Urdax' 10 urte-ko mutiko bizkaitarrak jardungo dau; trontzan Ana eta Itziar nafarrak eta Etxeberria ahizpa bizkaitarrak; eta aizko-rarekin Julen Zelaieta eta Ander Lizarralde ibi-lliko dira. Ondoren, 13.00etan eskolen arte-ko herri-kirol lehiaketia jokatu dabe La Salle, Itzio, Mogel-Isasi eta Aldatze ikastetxietako umiak.

Eibarko Klub Deportibuk jarraitzen dau antolatzen Euskal jaixetako egitaraua.



Untzagako plazan ikusi ahal izango da domeka eguerdixan Arku-Dantzen Naziñoarteko jaialdixa, Euskal Herriko eta atzerriko taldiekin.

Maiatzaren azken asteburuan emongo jako errematia aurtengo programaziñuari

Horrez gain, goiz osuan ta-luak egitten eta saltzen ibilliko dira AEK Euskaltegikuak, urte-roko moduan. Ekitaldi guztiak Toribio Etxebarria kalia egin-go dira.

Domekan, arku-dantzak protagonista

Arratsaldian, barriz, 19.30-xetan kale animaziñua hasiko da Zpeiz Mukaki taldiarekin. Dantza tradizioaletan oiñarri-tutako kale animaziño umore-

tsua izango dala aurreratu da-be antolatzailliak. Eta gabian, 22.00etatik aurrera, azken ur-tiotan jende mordua batzen daben Kantu Afari arrakasta-tsua txandia izango da. Bertara juateko sarrerak Depo-rren eta Kultun erosi leikez (maiatzaren 25era arte, 12 eta 20 euro).

Eta, Euskal Jaixa agurtzeko, domekan arku-dantzak izango dira protagonista: 12.00xetan Urkizutik Untzagarañio juango dira arku-dantzen jaialdixan par-te hartuko daben guztiak. Ordu erdi geruago, Untzagan, Ezpa-lak-Arku-dantzen nazioarteko jaialdixa hasiko da Euskal Herri-ko eta atzerriko arku-dantzen erakustaldixa. 14.30xetan herri bazkarixa egingo da karpan eta, ondoren, erromerixa eta La-rain-dantzarekin agurutuko do-gu aurtengo Euskal Jaixa.

AKONDIA



Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^a Jesus Blanco

Bitto Sarasketa, 12
☎ 943 12 74 15


MUGICA iturgintza

- GASA ETA ITURGINTZA
- ALTZARI ETA OSAGARRIAK
- BAINUONTZIAK eta HIDROMASAJERAKO KABINAK
- HANSGROHE GRIFERIA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU ERRADIATZAILEA



hansgrohe

San Juan 15 - behea
Tfnoa. 943 201 030 / Faxe. 943 207 224



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 ☎ 943 20 33 29 EIBAR

teen-ajeak



*Irar Baglietto
izan da Ipurterren
D ereduko DBH 3. eta 4.
mailakoan artean
sarailea aurtan.
'Itxaropenaren trenaren
zain' ren 15 urteko
Itrioko neska honen
ipuinaren izenburua.*

"Intriga eta amodiozko nobelak ditut gustoko"

- Lehenik eta behin, zorionak.

Eskerrik asko.

- Zertan datza zuk egindako 'Itxaropenaren trenaren zain' ipuinak?

Neska bati mutil bat gustatzen zaio eta mutilak aipatzen dio Ken Zazpiren abesti bat asko gustatzen zaiola, "Trenaren zain" deitzen dena eta momentu txarrenetan laguntzen diona. Mutilak, orduan, istripu bat izaten du eta koman sartzen da. Esnatzen denean abestiaren izenburua aipatzen du eta, orduan, neska ospitalera doa abestia abestera. Horren ostean, mutila sendatu egiten da.

- Esperientzia pertsonale-tan oinarrituta dago?

Ez, ez. Imajinario kontu bat izan da.

- Nola Inspiratu zinen Ipul-na Idazteko orduan?

Ba Ken Zazpiren abesti hori entzuten.

- Talde gustokoena duzu?

Gustokoena ez, baina gustatzen zait.

- Lehlaketetan parte hartzeko ohitura daukazu?

Ikastolan esaten digutene-tan soilik hartzen dut parte.

- Zein literatura mota duzu gustokoen?

Berdin zait. Intrigazkoak gustatzen zaizkit eta, azkenaldian, amodiozkoak.

Pertsona ekintzail

Pertsona ekintzaileak oso baloratuak izan dira beti edozein arlotan. Euren bidea ireki eta euren lanaren jabe izan nahiarekin, pertsona ekintzaileek balore gehigarri bat daukate gaur egunean, gehienbat alderdi enpresarial batetik ikusten bada. Ekintzailearen figura indartu nahi izan da azken urteotan gure eskualdean eta baita Euskal Herri osoan ere, horrela, maiatzaren 9an Ekintzailearen Eguna ospatu zen.

Debege sak hainbat ekimen antolatu ditu aste honetan eta eguaztenean izan zuten ekimen hauek amaiera Portalean ekitaldi berezi batekin. Ekitaldi honek Debarrena Ekinean sarearen topalekua izatea nahi izan zuen, zerbait berri-tzailea. Horrela, eskualdeko

hainbat ekintzaile, banketxe, elkarte, zentro teknologiko, hezkuntza-zentro eta abarrek hartu zuten parte euren esperientziak, proiektuak edota zailtasunak elkarbanatuz. Debege sak Debarrena Ekinean lelopean, ekintzaileei laguntzeko zerbitzuaren irudia izango den logotipo lehiake-



Ruibal gidaririk gabeko furgoneten alokairurako enpresako Ruben Pedraza eta Ibon San Miguel.

HOROSKOPOA

ARIES

Dantzarako gogoia izango duzu hurrengo egunotan. Pentsatu al duzu tango edo horrelako dantza-ikastaroren batean izena ematea? Tentsioak alde batera lagatzeko gauza ezinhobe da, egin ezazu froga. Emaizak ziurtatuta daude!

TAURUS

Azkenaldian dena joan zaizu gaizki, txarrera zihoazen kontu guztiak eta ez zenuen uste denbora gutxian hobetuko zirenik. Ba adi egon, izan ere, datorren astetik aurrera egoerak aldaketa izugarria jasango du.

GEMINI

Beti kirola egin behar duzula pentsatzen, baina hor geratzen da gauza, pentsatzean, ez baituzu muskulu bat ere mugitzen! Errealista izan zaitez eta jakitzen baduzu ez duzula ezer egingo, ez ezazu zure burua engainatu.

CANCER

Askok pentsatzen dute ordenagailu bat duzula zure buruan, baina zu ere gizaki bat zara eta akatsak egiten dituzu. Ez zaitez estutu horregaitik, besteak konturatu behar dira zu ez zarela robot bat. Lasai egon zaitez!

LEO

Ukitzen duzun edozer gauza apurtzen duzu, nolako abilezia zurea! Azkenean, barregarria suertatzen da hori, beti izaten baitzara zu, zure ingurukoak ez dira harritzen jada! Norbaitek bideo-kamerarekin grabatu behar duzu zuk ikusteko.

VIRGO

Zure sentimenduak ez dituzu inoiz erakusten, dena zuretzako gordezten duzu. Zure odola izotza baino hotzagoa da, zergaitik ez duzu piska bat berotzen? Martitzenean sentimendu horiek erakusteko aukera ezinhobeia izango duzu.

LIBRA

Beroa gero eta handiagoa da eta, ondorioz, gero eta izerdi gehiago egiten duzu. Askok diote ona dela izerdi egitea, baina horrek ematen duen usaina ez da oso atsegu-na. Pentsatu piska bat inguruko-engan.

SCORPIUS

Sekretu bat kontatuko dizu lagun batek datorren astean. Berak konfidantza osoa ipini du zuegan, beraz ezin diozu hutsik egin. Tentazioa handia bada ere, ahoe itxita eduki, bestela ondorioak larrak izan daitezke.

SAGITTARIUS

Gogorra da bizitza, ezta? Ba bai, momentu txarrak pasatu behar dira, baina horietatik ere gauza onak atera daitezke. Gainera, beste gauza on asko daukazu inguruan eta horietaz gozatu beharko zenuke! Animo!

CAPRICORNIUS

Botakagurea eta tripakomina izango duzu asteburuan. Birus arraroren bat sartuko da zure gorputzean eta egun horiek izor-ratuko dizkizu. Mimoak eskatu eta jasotzeko momentua izango da, merezi duzu-eta.

AQUARIUS

Denbora ez duzu batere kontrolatzen. Beti berandu, orduz kanpo... kokoteraino dituzu lagunak! Emaioz buelta gauzari eta pentsatu eurek berdina egiten dizutela, ez zitzaizun gustatuko, ezta? Ba badakizu.

PISCIS

Plan asko egin dituzu udarako, baina denbora emango duzu? Gainera, pentsatu opor egunak atse-denerako egunak direla, ez zaitez gehiegi estresatu, ez baitu merezi! Denbora ondo aprobetxatu, baina erlaxatzeko uneak izan!

earen egunaren ospakizuna

ta antolatu zuen eta eguazte-
neko ekitaldian ezagutu zen
irabazlea. Bestalde, balore
ekintzaileen errekonozimen-
dua ere egin zen.

Sentsibilizatzeko ekitaldia UNI-n

UNI Eibar-Ermua BHI-n sen-
sibilizatzeko ekitaldi bat egin
zen maiatzaren 9an Lanbide
Heziketaren Esparruko Pertso-
na Ekintzailearen Eguna ospa-
tzeko. Ekitaldi hori 'Tknika'
Eusko Jaurlaritzako Lanbide
Heziketako Zuzendaritza eta
Diputazio Foralak bultzaturiko
kanpainaren barruan egin zen.
Antxon Narbaiza Institutuko
Zuzendariak, Vanesa Hortas
Debegesako Deba Barreneko
Enpresa Egitasmo berriei la-
guntzeko sailekoak, Jordi Lo-
renzo Ermuko Udaleko Enple-
gu eta Lekuko Garapenerako
eragileak, Mentxu Zalduak IN-
TEGRA social outsourcingeko-
ak eta Carmelo Oiarzabal UNI-
ko Urrats Bat egitasmoaren ar-
duradunak hartu zuten parte.

Hitzaldiak Armeria Eskolan

Armeria Eskolan joan den
aste osoan zehar ekintza ez-
berdinak egin ziren Ekintzaile-
aren Astea ospatzeko. Arme-
riako ikasleek EJE programa-
ren jaietan parte hartu zuten
Donostiako Kursalean eta
maiatzaren 9an egin zuten
ekintza nagusia. Bertan, ikasle



Ekintzaileen Egunean UNI-n egindako jardunaldi berezietan parte hartu zutenen irudia.

batzuek hitzaldia eskaini zien
zentruko beste ikasle batzuei.

Hitzaldiaren egun berean,
stand ezberdinak kokatu ziren
zentroan eta Heziketa Zikloe-
tako ikasleek hainbat hitzaldi
jaso zituzten kultura ekintzaile-
aren gainean.

kola Sarien VII. edizioa mar-
txan dagoela eta hilaren 23ra
arte aurkeztu daitezkeela
proiektuak Armeria Eskolan.

Ingenarritza Eskolako Jalaldia

Eibarko Industria Ingenari-
ritza Teknikoko Unibertsitate



Debamatika enpresa berriak zerbitzu informatikoak, aholkularitza eta formazioa eskaintzen ditu.

Gogoratu behar da, beste-
tik, DBHko azken urteko ikas-
leei zuzenduriko Armeria Es-

Eskolak jaialdia ospatu zuen
maiatzaren 9an. Ekintza ez-
berdinak antolatu ziren egun
horretan, horrela, goizeko
10.00etan futbito partiduare-
kin hasi zuten eguna ikasle-
ek. Horren ostean, ekitaldi
ofiziala egin zen 12.00etan
eta irakasle, ikasle, adminis-
trari eta zerbitzuetako kideek
hartu zuten parte bertan.
Gainera, Tomas Jimenez Gi-
sasola irakasleak errekonozim-
endua jaso zuen bere 25
urtetako zerbitzuagaitik eta,
jarraian, 2007/08 promozio-
ko Industria Ingenari Tekniko,
Industria Elektronikako eta
Mekanikako ikasleek opari
bat jaso zuten.



UNIko ikasleak, finalistak izateaz gain, EJE programako Gipuzkoako 2. saria jaso zuten.



Zorionak, Arrate!

A skok oraindik ez di-
tuzte behar den be-
zala baloratzen Eiba-
rren ditugun taldeak eta
kirolariak. Arrate eskuba-
loi taldeak aurtan egin
duena, txapela kentzeko
modukoa da. Zazpigarren
munduko ligaren onene-
tariko batean, finalurre-
tan galdu Errege Kopan,
eta, gutxi balitz, seguraski
Europar jokatu du hu-
rrongo urtean. Benetan si-
nestezina gure herriak
duen populazioa ikusita.

Baina tristeena zera da:
Ipurua kiroldegian Arra-
tek jokatzeko duenean,
1.000 pertsona inguru
besterik ez dira joaten.
Hori bai, gero kalean oso
erraza da kritikatzeko, edo-
ta ondo hitz egitea... Bai-
na Arrate bezalako talde
batek behar duena jendea
kiroldegira joatea da, ei-
bartarrok bazkide izatea,
eta hori lortzea ez da ba-
tere erreza. Hurrengo
denboraldian, Europa
osoko taldeak ikusi ahal
izango ditugu Eibarren.
Hori da hori meritua!

Bakoitzak pentsa deza-
la, baina neri behintzat es-
kerrak ematea besterik ez
zait falta. Gainera, esan
dudan guztia gutxi balitz,
jokalari eta direktiboen
kalitate pertsonala izuga-
rria da. Beti irrifar batekin
kalean, mundu guztia
agurtzen eta pozik.

Orain gure txanda da.
Hurrengo urtean eibarta-
rrok nolakoak garen eza-
gutu behar dute. Aupa
Arrate! Zuekin gaude, txap-
eldunak!

Borja Rodríguez
(KAZETARIA)

Foball-7ko tornea eta Uda 2008 abian

Kirrol Patronatoak Foball-7 txapelketa-ko edizio berria antolatu du, hamargarrena, eta izena emateko epea zabaldu. Epe hori maiatzaren 30ean amaituko da eta, ondoren, ekainaren 3an bilera egingo da taldeetako ordezkarien artean txapelketako azken puntuak zehazteko. 16 urtetik gorakoek bakarrik hartu ahal izango dute parte eta, gehienez jota, 20 talde onartuko dira. Partiduak Elgoibarko Olaizaga eta gure herriko Ipurua kiroldegietan jokatuko dira.



Uda 2008 Ipuruan, Unben eta Deban

Hilaren amaiera arte izena eman ahal izango da Uda 2008 Programan. Hiru aukera ezberdin eskaintzen dira, adinaren arabera banatuta hiru instalazio kontuan hartuta. Ipuruan parte hartu ahaliko dute 1998. eta 2004. urteen artean jaiotakoek eta modalitate asko izango dute aukeran: eskulanak, uretako jokoak, areto jokoak, hockey-a, karatea, badminton-a, atletismoa, saskibaloia, eskubaloia eta patinak. Unben 1993. eta 1998. urteren artean jaiotakoek jardun ahal izango dute, modalitate hauekin: atletismoa, bizikleta, rugbia, arku tiraketa eta tenisa. Eta, azkenik, Deban 1993. eta 1996. urteren artean jaiotakoendako, piraguismoa, bodiboard-a eta surf-a praktikatzeko aukera izango da. Aukera zabalak, beraz, Kirol Patronatoarena.



Urkiko neskak Gipuzkoako finalean

Azken jardunaldian Zarautzi 9-0 irabaziz eta, liga amaitzeko jardunaldi bakarraren faltan, Urkiko infantil mailako nesken taldeak Gipuzkoako finala jokatzeko txartela eskuratu du; partidu horretan Añorga izango du aurkari eta, irabaziz gero, txapelketa autonomikoa jokatzeko aukera izango du. Bestalde, apirilean jokatutako Gasteiz Cup-eko torneoan, seigarrenak geratu ziren 24 talderen artean eta Kopako torneoan 3. postuan sailkatu ziren. Joko bikaina egiteaz gain, neska gazte horiek bikain dihardute ordezkatzeko gure herriko foballaren maila.

Urkiko talde nagusienak ere, hau da 2. Erregional mailakoak, garaipen polita eskuratu zuen Mariñoren aurka (3-6), Irunen jokatutako neurketan. Asteburuan Kopako finalerdia jokatuko dute Donostian, Axularren aurka (azken honek Eibartarrak taldea kanporatu du).

100 karateka infantil mailako txapelketan

Zapatuan Unibertsitate Laboralean jokatutako infantil mailako XIV. Karate Txapelketan, ehun bat kirolarik hartu zuten parte, eurretatik hogeitaz Urki-Amaña taldekoak. Eibartarrekin batera, Bergara, Oñati, Azkoitia, Markina, Mendar... inguruko herrietako ordezkariak izan ziren. Gure herriko ordezkariak dagokieenez, Egoitz San Martinek irabazi zuen benjaminetan eta maila berean Xabier Goenaga hirugarren sailkatu zen; Iker Narbaiza bigarren geratu zen alebinetan; eta, azkenik, Ane San Martin eta Fatima Fabri 3.ak izan ziren, alebinetan eta infantiletan, hurrenez hurren.



Urki-Amaña karate taldekoek, gaztetatik sariak pilatzen.

Sei eibartar Zegama-Aizkorri maratoian

Luis M^a Ugarte, Jabier Bastarrika, Bittor Urzelai, Asier Garde, Jose Lizundia eta Eduardo Uribe izango dira gure herriko ordezkariak domekan jokatuko den mendi maratoi ospetsu horretan. Goizeko 09.00etan hasiko da lasterketa gogor hori eta guztizko desnibela bost kilometro eta erdikoa du (2.736 metro egin beharko dituzte gorantz parte hartzaileek, beste hainbeste beherantz egiteko). Puntu gorena 1.551 metrotan du probak eta baxuena 296tan. 42 kilometrotik, bestalde, lau eta erdi

tontor bidezko haitzen artean egin beharko dituzte parte hartzaileek, hamar eta erdi lur pistetan, bi kilometro autoendako pistetatik eta ia 25 bidezidor eta larreetatik,

asfalto gainean egin beharko duten kilometro erdiarekin batera. Irabazleak lau ordutan amaitzea espero da eta kontrola 17.00etan itxiko da.



Omenaldia Solari

Zarauzko eta Eibarko lagunak agurra jasoko du apirilaren 24an mendi istripuan hil zen Gaizka Sola mendizaleak. Ekitaldia domeka goizean egingo dute Kalamuan eta, horretarako, antolatzaileek diotenez, "oinez joatea nahi duenak aukera du. 09.00etan Deportivoaren aurretik irtenda, Usartzan gelditua egingo dugu 10.00ak inguruan eta gero Parlamentura abiatuko gara, han ekitaldia 11.00etan hasteko". Pago bat aldatuko dute eta, ondoren, txalaparta, dantza eta bertsoen ordua helduko da.

JoseAutos Ligako irabazlea, eta Kopa abian

JoseAutosek nagusitasunez irabazi du foball-zaletuko txapelketa eta, azkenean, lau puntuko aldea kendu zion Durango bigarren sailkatuari. Ligako azken jardunaldian, txapeldunak 11-0 irabazi zion EzDok taldeari, Durangok Azkenarekin 2-3 galtzen zuen bitartean. Txapeldunak 69 punturekin amaitu zuen liga, Durangok 65 eskuratu zituen eta urruti samar geratu ziren Tanke-mans (49) eta Teknografik (48).

Kopako final zortzirenetan, bestalde, Durangok 4-0 irabazi zion Vivaldiri, JoseAutosek 3-0 Eitek-i, Txokok 2-0 Azkenari,



Denboraldiaren amaiera gero eta gertuago dago foball-zaletuan: Kopako finalaurdenak jokoan dira.

emaitza berarekin Teknografikek Sporting-i eta, gol gehien izan zituen partiduan, Areto-k 6-5 EzDok-i. Finalaurdenetan honako neurketak emango dira: bihar, 09.00etan,

Akats-Durango; eta 10.30etan, Aguiñaspi-Areto. Etzi, bestalde: 09.00-etan, Teknografik-Tankemans; eta 10.30-etan, Txoko-JoseAutos.

Karabina tiro txapelketa bihar Hezkuntza Esparruan

Bihar, goizeko 11.00etan hasita, Eibarko XIII. Tiro Txapelketa jokatu da Unibertsitate Laboreko galerian. Txapelketa hori airezko karabinekin egingo dute eta hiru mailatan banatu da: umeak, gazteak eta helduak. Tiro olinpikoko modalitate horretako tiraldi askorik ez da izaten gure hirian, batez ere leku aproposik ere ez dutelako tiralariek, eta

txapelketa hori da urteko garrantzitsuenetakoa, Sanandresetan jokatzeko denarekin batera.



Udaberri pelota torneo, lau eta erdian

Lau partidu jokatu dira asteburu honetan ere Armeria Eskolako frontoian: gaur bertan bi eta beste bi bihar goizean. Gaurko jaialdia 20.00etan hasiko da, Egaña Klub Deportiboko ordezkariaren eta Elgoibarko Agirrebeñaren artean eta, jarraian, Karmona eibartarrak Zumarragako Viana izango du aurrez-aurre. Bihar goizeko partiduetan (11.00etan hasiko da jaialdia), Etxaniz eibartarrak Barrerosen aurka jokatu du; eta Labaka Deportiboko ordezkariak Porturen kontra.

Azken asteburuan jokatu partiduetan, horiek ere lau eta erdiaren barruan, Karmonak 22-16 irabazi zion Agirrebeñari, Egañak 22-13 Vianari eta Labakak 9-22 galdu zuen Barrerosekin. Ligaxka horretatik final hamaseirenetarako txartelak daude jokoan.

Herri Irratia
Eibar

Loyola Media

Elche C.F. - S.D. Eibar

Jarraitu partidua:

Borja Rodríguez

eta **Herri Irratiko**

kiroletako taldearekin

Maiatzak 18, domeka 18.00etan

90.7 Fm

Arrateko Zikloturista Igoeraren X. edizioa

Domeka goizean Eibarko Txirrindulari Elkarteak antolatutako Arrateko Zikloturista Igoeraren X. edizioa jokatu da. 09.00etan Toribio Etxebarria kaletik irtenda, Ermuarantz joko dute parte hartzaileek, handik 3. mailako Trabakua mendateari ekiteko. Gero, Markina eta Milloi behin pasatuta, Lekeitiotik itsasaldekobidea hartuko dute eta, Ondarroa, Mutriku eta Deba atzean lagata, Itziarko mendatearekin hasiko dira; hor probaren



Aurreko edizio bateko irteera Toribio Etxebarria kalean.

zati gogorrenari ekin beharko diote zikloturistek, Azurki zain izango baitute (%16ko pendi-zearekin aldapetan). Jarraian, Elgoibarrera jaitsiko dira bide berritik eta, Eibar atzean lagata, Arrateko Santutegirako bidea hartuko dute proba amaitzeko.

Parte hartu nahi dutenek ize-na domekan bertan eman dezakete, 12 euro ordainduta; hori bai, txirrindularitzako lizentzia izatea derrigorrezkoa da eta baita babes kaskoa eramatea ere.

Ibarluzeatarrentzat saioa eta lidergoa

Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketako 6. jardunaldia jokatu zen Floreagako bolatokian eta San Migueleko Julen Ibarluzeak irabazi zuen, bost txirlo botata. Bat gutxiagorekin konformatu behar izan zuen Asola-Berriko Luis Javier Oregi eta hirurekin geratu ziren Ganix Rodriguez eta Juan Cruz Arizaga -hauek ere Asola-Berrikoak- eta Floreagako Jose Muñoz eta Manuel Zapiain. Emaiz horiekin, Ganix Rodriguez (21) puntu bira gerturatzan zaio Angel Ibarluzea liderrari (23), Anartz Esteban eta Sergio Rodriguez 19rekin dauden bitartean.

Taldeakako sailkapenean, Asola-Berri A dago lidergoan, sendo, 77 punturekin, eta atzetik ditu San Miguel A (65) eta Asola-Berri B (64). Bikoteka, bestalde, Xabier Loiola eta Ibarluzea liderra dira nagusi, 36 punturekin, Sergio eta Juan Luis Rodriguezen aurretik -azken hauek, 34rekin-. Lehendakari Sarian, Ganix Rodriguezek puntu bakarrek aldea ateratzen dio Bittor Astigaragari.



Asola-Berri taldeko bost ordezkari. Liderra harrapatzeko ahaleginean dihardute Eibarko bolariak.

Hurrengo tiraldia Elgoibarko San Rokeko bolatokian izango da, bihar arratsaldean, 17.00etan hasita.

Relojos Mondaine finalaren bila

Areto-foballeko jubenil mailako Mondainek txapelketako finalerdia jokatu du bihar, eguerdik 12.15etan, Ipuruia kiroldegian. Finalaren bila, Zarautz izango da aurkaria. Ligako azken jardunaldian 4-0 irabazi zion Azpeitokori.



Bost domina Kalamuakoentzat Andorran

Andorra Hiriko karateko XV. torneo-an, Kalamuako bost ordezkari podiumera igoztea lortu zuten, batek gainera gorenera: Aitor Villabak urrezko domina eraman zuen junior mailako 73 kilotik beherakoen artean. Zilarrezkoa bereganatu zuen seniorretan, 63 kilotik beherako mailan, Natalia de Diosek; eta brontzezkoa eurenaganatu zuten Unai Soraluzek (seniorretan, 90etik gora), Eneko Loresek (infantiletan) eta Jon Murillok (alebinetan). Taldeakako sailkapenean, eibartarrak 4. postuarekin egin ziren, Katalunia, Madril, Andorra eta Frantziako beste taldeen artean.

Herriko xakelarien garaipenak Grosen eta Kutxa txapelketan



Klub Deportiboko xake taldeko kadeteek txapelketa bi horietan dihardute eta, dagoeneko, Grosekoan Haritz Garrok eta Jon Aranak lehenengo bi puntuak eskuratu dituzte. Txapelketa berean, Diego Olmok, Edu Olabek eta Ander Egurrolak bana puntu dute eta Aitor Arroitauregik eta Galder Irisarrik oraindik ez dute punturik eurenaganatu.

Kutxa txapelketan, txanda bi jokatu, eibartarrak bost puntu eta erdi dituzte. Lehen jardunaldian azkoitiarren aurka bina berdindu eta gero, bigarren hiru garaipen eta berdinketa bat lortu zuten eibartarrak Gros B-ren aurrean. Lehen fasean zazpi taldek dihardute lehian, aurrera jarraitzea ahalbidetzen duten lau postuen bila: eibartarrak martxa onean, beraz.

“Afrikako argiak zoragarriak dira”

‘Afrikako argiak’ lanagaitik Argazkilaritzako Sari Nazionala eman zioten Gabriel Brauri iaz eta lan hori erakusgai dago orain Portalean hilaren amaierara arte. Horrez gain, argazkilari kataluniarrek tailer bat ere eskaini du argazki digitalean zuri-beltzaren tratamenduaren inguruan. Egindako lanei eta dituen proiektuei buruz egin dugu berba Gabriel Braurekin.

- Portalean zure ‘Afrikako argiak’ lana (2007an Argazkilaritzako Sari Nazionala izan zena) dago erakusgai apirilaren 30etik malatzaren 31ra arte. Zertan datza lanak?

‘Afrikako argiak’ lanak Afrikako herrialde ezberdinetatik egindako ibilbide bat da, bai ekialdeko Afrika, bai Sahara azpiko Afrikatik. 1998an hasi nintzen Afrikara joaten, hasiera batean herrialdeak bisitatu, eta etnia, tribu eta herri ezberdinetako jendea ezagutzeko asmoarekin. Horrela, nola bizi diren, euren tradizioak zeintzuk diren eta euren egunerokotasuneko bizimodua nolakoa den ezagutu nahi nuen.

- Zer izan nahi duzu adierazi lan honekin?

Ba hori bera. Jende honen bizimodua, gurearenarekin alderatuta ezberdina dena; herri batzuk, ohitura eta tradizio errotuak dituztenak eta antzinatik datozenak; eta abar. Azken finean, azaldu nahi nuena zen zer aurkituko zukeen bertara joandako europar batek.

- Horren bila joan zinen Afrikara edo momentuan lrtzen zerbait izan zen?

Orain dela urte asko egon nintzen lehenengo aldiz Afrikan eta turista moduan egin nuen, inolako beste nahirik gabe.

Gauza da berehala konturatu nintzela niri interesatzen zitzaidana jendea zela. ‘Afrikako argiak’ lanaren kontua, ondoren, bai izan zen zerbait pentsatuagoa eta prestatuagoa. Hau da, ez nintzen abentura bila joan, baizik buruan nuenaren bila. Ezin izan naiz nik nahi izango nukeen herrialde guztietara joan, baina uste dut Afrika nahiko ondo islatzen dela lanean.

- Touaregekin, masalekin, dogolekin... Afrikako herri, etnia eta tribu ezberdinekin elkarbizitzan egon zara lana egin bitartean. Lan gogorra izan da?

Etiket kanpo eta ohikoak ez diren baldintzetan lan egiten duzunean gogorra da, bai alde fisikoan, bai psikologikoan. Egun osoa era ezberdinean bizi den jendearekin zaude, bai jaterako orduan, bai janterako eran, bai lo egiteko orduan... beraz, gogorra da. Baina, bestalde, gauza asko ematen dizkizun lana da, aberasgarria, gurearekin alderatuta oso ezberdina den beste mundu bateko jende eta egoerak ezagutzeko aukera ematen dizulako.

- Egoera horietan, nolakoa izan da lanaren prozesua?

Orokorrean, joango nintzen lekuen gainean dokumentatzen ahalegintzen nintzen. Bes-



talde, gidari baten laguntza izaten nuen, kotxe bat eta abar, beraz, ahalegintzen nintzen aurkituko nuen gogortasun hori ahalik eta gehien gutxitzea. Hala ere, gogorra da, ez baita normalak diren egoeretan lan egiten: goiz altxatu behar zara lehen argazkiak goizean goiz atera behar direlako, azken argazkiak egunaren azken orduetan atera behar izaten dira, klima oso gogorra da... baina denborarekin zailtasun horiek gaintu egiten dira.

- Lanaren izenburua ‘Afrikako argiak’ da. Nolakoak dira Afrikako argiak?

Afrikako argiak zoragarriak dira, ikaragarriak, indartsuak, beroak, abegikorak.

- Argazkiak zuri-beltzean daude. Arrazoirik bai?

Era batean, zuri-beltzak ikuslearen arreta gehiago zentratzen du koloreak baino. Ez nuen nahi lan hau exotikoegia izatea, bestela jendea umearen aurpegi politarekin, eta gauza exotiko eta turistikoekin geratuko litzateke. Beraz, gehiago sakondu behar zela uste nuen eta horretan laguntzen duen erreminta bat zuri-beltza da. Zuri-beltza dramatikoagoa da,

kontzentratzen gehiago laguntzen du eta argazki bakoitzaren atzean dagoena irakurtzen gehiago laguntzen du, izan ere, batzuetan koloreak begirada hedatzen du.

- Erakusketaz gain, Malatzan Argazkilaritzaren barruan Artxibo Digitalean Zuri-Beltzaren Tratamenduari buruzko tallerak eskaini zuen asteburuan. Nola joan zen?

Uste dut oso ondo egon zela eta jendea oso pozik atera zen azaldu nizkien haibat gauzekin. Oinarrian, nik adierazi nahi nuena zen kamera digitalekin zuri-beltzeko argazkiak laborategian tratatu ostean lortzen zen emaitza berdina lortu daitekeela, hori bai, teknologia digitalak ematen dituen abantailak.

- Buruan proiekturen bat daukazu edo zerbaitetan lanean zabilta?

Hilaren 28an bidai bat hasiko dut. Jorratuko dudana gaia itsasoa izango da, itsasoaren eta gizakiaren arteko harremana zehazki. Lan honen zati bat egina daukat, Mediterraneo aldean ibili bainintzen. Orain, iparraldean hasiko naiz, Galizia aldean. Ikusiko dut ea nolako eboluzioa duen proiektu honek.

GABRIEL BRAU, ARGAZKILARIA



Sostoa eta Lartaun abesbatzen kontzertua

Bihar zapatua Sostoa eta Lartaun abesbatzek kontzertua emango dute Coliseo antzokian, 20.00etatik aurrera. Eibarren Lore Jokoak egin zirela ehun urte beteko dira aurten eta kontzertua mendeurrena gogoratzeko egingo diren ospakizunen barruan antolatu da. Kontzertua hasi aurretik, Marikarmen Etxebarriak eta Isabel Laspiurrek J. A. Santestebanen euskal kanta batzuk eskainiko dituzte, XX. mende hasierako giroa, Lore Jokoak egin zireneko saioa gogora ekartzeko ahalegi-nean. Ondoren, Jesus Maria Sagarnak zuzenduta, Sostoa abesbatzak honako piezak eskainiko ditu: 'De colores' (F. Remacha), 'Frühlingsahnung' (F.B. Mendelssohn), 'Udaberria-Die Jahreszeiten' (J.

Haydn), 'Im frühlingsanfang' (W.A. Mozart), 'Plaisir d'amour' (G.B. Martini), 'Arrantzale gaxoa' (J. Busto), 'Anderia gorarik' (J.M. Zubiria) eta 'Bilintx' (J. Oñatibia). Bakarlari gisa Arrate Iñarrairegi, Edurne Laskurain eta Kristina Olañetak jardungo dute eta pianoan, berriz, Mari Karmen etxebarriak eta Isabel Laspiurrek.

1908ko Lore Jokoak gogoan

Programako lehenengo bost abestiak udaberriari buruzkoak dira eta Sostoaik aipamen berezia egin nahi diote 'Arrantzale gaxoa' abestiari, Javier Busto hondarribitarrak bereziki Eibarko abesbatzarentzat idatzitako pieza baita. Egilea kontzertuan izango dela aurreratu dute. Bestalde, Lartaun talde gonbidatua oiartuarra dela kontuan



Eibarko kontzertuarekin Lore Jokoak-en 100. urteurrena ospatuko da.

izanda, Sostoaokoek azken pieza bertakoa zen Joñ Oñatibiak idatzitako bat izatea erabaki dute.

Sostoa bere emanaldia amaitu eta gero, Eibarko 1908ko Lore Jokoetan saritu zuten 'Euskal Festara' Usandizagaren partitura pianoarekin joko dute.

Kontzertuaren bigarren zatian Lartaun abesbatzak honako abestiak eskainiko ditu, Alaitz Guridiren zuzendaritzapean: 'Agur Maria' (J. Uruñue-

la), 'Aita gurea' (F. Madina), 'Locus iste' (A. Bruckner), 'Goizian goizik' (A. Donostia), 'Lili eder bat' (A. Donostia), 'Aitak eta amak' (A. Donostia), 'Rossignolet gentil' (HR. Willissegger), 'Cantos asturianos' (J. Domínguez) eta 'El abanico' (J. Trayter). Kontzertuari amaiera biribila emateko, abesbatza biek batera Aita Donostiaren 'Basoilarra' eta 'Binbili Bonbolo' abestuko dituzte. Sarrerak euro bi balio du.

Ipurterreko sariak banatuta

Eguaztenean Ipurterre ipuin lehiaketako aurtengo irabazleek sariak jaso zituzten Hezkuntza Esparruko aretoan egin zen ekitaldian. Ia 1.000 ipuin jaso ditu ...eta kitto! Euskararen Elkarteak aurtengo edizioan, 6 eta 16 urte bitarteko ikasleek idatzitakoak, eta epaimahaiak honako ikasleenak aukeratu ditu saria jasotzeko: D ereduan Nagore Ca-



Sari banaketa aprobetxatuz, ikasleek Eriz magoaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten.



glietto eta Elena Agirrebena eta B ereduan, berriz, Paula Gómez, Elena Idigoras, Ane Alvarez, Sandra Sánchez eta Idoia Badiola. Denen ipuinak datorren astean kaleratuko den Txikitto! hilabetekarian irakurtzeko moduan izango dira. Eguazten goizko ekitaldian irabazleek eta gainontzeko umeek primeran pasatu zuten, Eriz magoaren ikuskizunari esker.



Fernando Retolaza irabazlea, kamara eskuan duela, Deporreko taldekideekin.

Eguen Zuri argazki lehiaketako irabazleak

Arrate Kultur Elkarteak aurtengo Eguen Zuri argazki lehiaketaren irabazleak nortzuk izan diren aste honetan bertan eman du ezagutzera: lehenengo saria Fernando Retolazak eskuratu du, 'Kokoak 2' izenburuko argazkiarekin. Bigarren saria, berriz, Javier Pedro Fernández Ferreras-entzat izan da, 'Argazkia 1' izenburuko lanarekin eta hirugarrena Maite Beistegik eskuratu du, 'Laukua' lanarekin. Jose Valderrey argazkilaria buru izan duen epaimahaiak partehartzaile guztiei eskerrak eman nahi izan dizkie eta lehiaketara aurkeztu diren lanen kalitatea azpimarratu dute.

Frankismoari buruzko hitzaldia

Montserrat Armengou TV3 Kataluniako te-
leibistako kazetaria Eibarren izango da egunean, hilaren 22an, 19.00etan Portalean 'Los niños perdidos del franquismo', Ricardo Belis-ekin bere dokumentalaren proiektzioan. Dokumentalak Franco-ren diktaduraren alde ilunenetako bat erakusten du: familia errepublikarren haurrek pasatu behar izan zituztenak, egoeraren biktima errugabeak izan arren. Dokumentala egin ahal

izateko, 30 bat elkarrizketa egin eta hainbat artxibotan ikertu zuten egileek.

Proiektzioa '1937 Intxorta Kultur Elkartek' (www.intxorta.org) antolatu du, Eibarko Udalaren laguntzarekin. Elkar-
tea 2005ean jaio zen eta Eibar, Bergara, Arrasate eta Aretxabaletako kideek osatzen dute. Elkar-
tearen helburu nagusiak gure iraganaren ikerketa eta difusioa dira eta Deba bailararen historiari buruzko hainbat ikerketa egin dute.



Montserrat Armengou.

Umeen bertso jaialdia abian

Maiatzaren 22an, egunean hasiko da umeen bertso jaialdia Coliseoan, 18.00etan eta jaialdiak jarraipena izango du hurrengo astean, hilaren 29an: Iturburu, Amaña, Aldatze, Urkizu, Arrateko Andra Mari eta La Salle ikastetxeetako ikasleak bertsoan egitera irtengo dira, iaz egin zuten bezala. Izan ere, Bertsozale Elkartek sortutako programaren barruan kokatzen da jaialdia. Aitor Mendiluze eta Nerea Urria bertsolariak ikasturtean zehar umeak bertsolari-tzan murgiltzeko ahaleginetan



ibili dira eta asteetako lanaren emaitzak egun bitan egingo den jaialdian ikusteko aukera paregabea izango da: koplak, beldurrezko istorioak, elkarrizketak, antzezlanak... horrelakoen gainean jardungo dute ikasleak Coliseoan, jakina, beti ere bertsoen neurri eta errimari jarraituta. Aitor Mendiluzek aipatutakoari jarraituz, "azken urte

biotan makina bat ikaslek hartu du parte egitasmoan eta horrek Eibarko bertsozale harrobia sendotzen lagunduko du. Ekinenak izan duen harrera ikusita, datorren urterako bertso-eskola sortzeko asmoa daukagu".

Coliseoko jaialdirako sarrerak euro bat balio du eta dagoeneko txartelak erosteko aukera badago, ohiko bideei jarraituta.



ANTON ALDUR

Laburrak

BERTSO SAIOA

AEKn irakasle izateko ikastaroa emango dute Donostiako Antiguako AEK euskaltegia ekainaren 30etik uztailaren 24ra. Euskara irakasteko oinarriko prestakuntza jasotzeko ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero, AEKren lan-poltsan sartzeko aukera izango da. Informazio gehiago jasotzeko, Gipuzkoako AEKra 943-327172 telefono zenbakira deitu daiteke.

MUSIKAN MATRIKULA

Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan izena emateko epea zabalik egongo da ekainaren 13ra arte. Pegoran eman daiteke izena eta kursoa irailaren 11n hasiko da. Irailean izena emateko aukera ere badago, baina leku librean arabera egin ahal izango da.

AMAÑAKO DANBORRADA

Amañako danborradan parte hartzeko entseguak hasita daude. Nagusiek 20.00etan entsaiatzen dute egue-netan eta umeek, berriz, martitzenetan 19.00etan, kasu bietan Amañako ikastetxean. Bestalde, jendea jantziak probatzera joan behar da Barrera kaleko Maza dendara. Norbaitek arazorik izanez gero, Jesus Mari Olmedo 'Katari' deitu behar dio 630570434 telefonora.

S. VALLEJOREN LIBURUA

Juan Sánchez Vallejo psikiatrak martitzenean aurkeztuko du bere azken liburua: 'Senectud... divino tesoro'. Liburuan zahartzaroan agertzen diren egoeren azterketa egiten du sendagileak. Aurkezpenean 19.00etan izango da Portaleko areto nagusian eta han bertan liburua erosteko aukera egongo da.

Gariteno

1957an sortua
GOZOTEGIA

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako TARTAK

TXANPU
BIDEBARRIETA, 3 Tel. 943 12 07 35

PRODUKTUAK:
SEBASTIAN, L'OREAL
WELLA, CLAIROL,
Schwarzkopf, REVLON
eta Aparatologia

den-dena
zure ilearentzat



Brba 1 dt estko

Mezu bat iritsi zait oraintxe bertan nire mugikorrera, betiko lagun baten mezua da, begietara begiratuta bakarrik elkar ulertzea lortzen dugun lagun on bate-na. Baina bi aldiz irakurri baldin badut ere, oraindik ez dut ulertu esatera datorrena, bat-batean beste hizkuntza baten komunikatu da nirekin, kontsonantez beteriko ahoskatu ezin diren berbak erabiliz. Hirugarren aldiz irakurri eta urduri jartzen hasi naizenean, telefonoa belarran jarri eta deitu egin dut besterik barik, jeroglifikoa deskodetzeko asmoz.

Oporretan kanpora gindoazenean lagunei bidaltzen genizkien gutunak etorri zaizkit gogora. Hila-bete oso batean ikusten ez ginenez, beharrezkoa genuen harremanetan jartzea amaitzen ez ziren istorioz betetako gutunak idatziz. Ganoraz idatzitako gutunak ziren hauek, esaldi borobilak erabiliz eta kaligrafia zainduz. Non geratu ote dira garai horiek?

Hainbeste urtetan h-ak eta z eta s-ak non demon-tre sartu ikasten jardun eta gero, gaur egungo idatzizko komunikazioan erabat kanpo uzten aritu gara hizkuntzaren oinarriko arauak. Jada berbek ez dute lehen zuten presentzia eta espazioa betetzen, zer esaten den bakarrik inporta du, ez zelan. Abiada bizian bizi gara, dudarik ez, baina ez dugu nahikoa bat-batean komunikatzeko asmatu dugun teknologia erabiltzearekin, are gehiago nahi dugu. Guk ere gure berbak murriztu ditugu, gure esanak ezabatu ditugu eta gure hitzek indarra galdu dute. Beldur naiz datorren aroan ez den ahozko komunikaziora pasako birus hau.

Nalara Azpeltia

Multikirolak-erako izen-ematea aurreratuta

Datorren ikasturtean Multikirolak egitasmoan parte hartu nahi duten ume eta gazteek ekainaren 6rako eman beharko dute izena euren ikastetxean.

Aurreko urteetan izen-ematea irailean izaten zen, baina programaren arduradunek urriaren erdi alderako dena behar bezala antolatuta izateko zailtasunak izaten zituztenez, aurten izena emateko epea aurreratzea erabaki dute. Behin izen-emate epea amaituta, umeek zehaztasunez jakingo dute hurrengo ikasturtean zein ordutegi eta zein egutegi izango duten Multikiroletan. Horrela, errazagoa egingo zaie irailean multikirola eta gainerako eskolaz kanpoko jarduerak koordinatzea.

Udaleko Euskara zerbitzutik adierazitakoaren arabera, "07-



08 ikasturtean Multikirolak egitasmoan Eibarko ikastetxe guztietako 450 ume inguru aritu dira, 18 talde benjaminetan eta 19 talde alebinetan banatuta. Egitasmo hau alebin eta benjamin mailetan garatzen da. Kirol kolektiboetan 15 jardunaldi izan dituzte eta esku-baloia, rugbia eta foballa lantzeko aukera izan dute. Bana-kako kirolean, berriz 4 jardunaldi izan dira, eta atletismoa,

pelota, judoa eta aerobikean jardun dute".

Egitasmoa garatzeko herriko ikastetxe guztiek, Kirol patro-natuak, Foru Aldundiak eta Eibarko kirol klubek hartzen dute parte. Guztiaren koordinazioaz Eneko Garcia arduratzen da. Datorren ikasturteko Multikirolak jardueraren prezioa 62 eurokoa izango da eta ikasturtean zehar ordainduko da, bakoitzak bere ikastetxean.

Ate irekien jardunaldia museoan

Armagintzaren museoak domekan jardunaldi berezia egingo du, Museoen Nazioarteko Eguna gogoratuko dela aprobe-txatuta. 10.00etatik 13.00-etara eta 16.00etatik 20.00etara sarrera doan izango da. Horrez gain, 10.30etatik 12.30etara maisu grabatzaileak zuzenean lan egiten ikusteko aukera egongo da: Vicente Alberdik eskuaide teknika-

rekin nola egiten duen lan erakutsiko du, Pedro Azpiatzuk gauza bera egingo du xixel eta mai-



luaz eta Asun Nogués-ek damaskinatuaren teknika erakutsiko du. Hiru teknikak armak apaintzeko nola lantzen dituzten ikusteko aukera paregabea izango da. Bestalde, 'Arkatza Museoan' izenburuko tailerra prestatu dute 6 eta 9 urte arteko umeak dituzten fam-iliarentzat.

Harixa Emoten eguaztenean

Eguaztenean ikasturteko azken Harixa Emoten literatur tertulia egingo

da: 'Mila eta bat gauen gauak' Patxi Zubizarretak euskeraratutako lanaren in-



guruko tertulia 19.00etan hasiko da ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuartera). Oraingo honetan, lanaren itzulpenari buruzko tertulia izango denez, ez da Zubizarreta etorriko, baina lanari buruz berba egiteko aukera izango dute lana irakurri dutenak. Antolatzaileek datorren ikasturterako aldaketak pentsatzen dihardute eta, aurreratu digute-nez, "ikasturte berriarekin batera indarberrituta etorriko dira tertuliak".

LEIRE ITURBE



Zezenketa arrakastatsua

Zuloagaren omenezko zezenketa antolatzen ibili den Eibarko Zezen-zaileen batzordeak eskerrak eman nahi dizkio zezenketa antolatzen jardundako eta bertaratu ziren guztiei: "Plazak beharginei, egun osoan mailarik gorena erakutsi zuen Cielito Musika Bandari, hilabetez zezenketarako sarrekerak saltzen ibili diren establezimenduetako ardura-dunei eta komunikabideei, eskaini duten laguntzagatik. Eta, nola ez, animatu gaituzten eta zezenketara joan ziren milaka eibartarrei, euri esker Eibar zezen-giroko jaialdia izatea lortu zen-eta".

JOSE VALDERREY



Hiru dimentsioko irudiak Portalean

Argazkilaritza Malatzean programazioaren barruan, Alfredo Divasson Klub Deportiboko Leize Ikerle taldeko kideak taller praktikoa eskainiko du bihar goizean Portalean, 10.00etatik 14.00etara. Maiatzean ikusgai dauden argazkilaritza erakusketetako batean anaglifoen efektuak ikusteko aukera eskaintzen du Divassonek: Portalean betaurreko berezi batzuekin Leize Ikerle taldearen argazkiak hiru dimentsiotan ikusgai daude egunotan.

Mallabia eta Gasteiz aurrez-aurre

Barixakuan bertso desafioa izan zen Montekasino tabernan. GR 16 bertso ibilbidean herririk herri jarduten dute bertsolariak, taldekako desafioetan puntuak batzen, eta saioan Mikel Arrillaga, Gari-koitx Sarriugarte eta Uxue Alberdi (Mallabia) nagusitu zitzaizten Gasteiz ordezkatzen ziharduten Felipe Zelaieta, Juan Mari Juaristi eta Rikardo González de Duranari (10-8). Asier Ibaibarriagak egin zituen gai jartzaile lanak. Itzulerako neurketa gaur jokatuko da, Gasteizen.



San Agustin kalean (2-4, P letra) grabazio-estudio profesionala ipini du 20 urteko eibartarrak: Studio Play Records. Maketak, CDak eta bestelakoak grabatzeko aukera eskaintzeaz gain, kontzertuen antolaketan eta beste hainbat kontutan laguntza emateko prest dago Aritz Arrieta.



ARITZ ARRIETA,

MUSIKA EKOIZLEA:

"Estudioak grabazioak egiteko aukera ematen die musikariei"

- Nolatan animatu zinen grabazio-estudioa martxan ipintzera?

Orain dela urte bi pentsatu nuen horrelako estudioa zabaltzea. Ikus-entzunezko komunikazioa ikasi nuen eta, ondoren, musika-ekoizpenaren inguruko ikastaroa egin nuen. Musika-konposaketak egitean animatu nintzen estudioa zabaltzeko pausoa ematera.

- Proiektua martxan ipintzeko laguntzarik izan duzu?

Debegesak horrelako proiektuak martxan ipintzeko laguntzak eskaintzen ditu eta niri asko lagundu didate estudioa martxan ipintzeko behar nuen guztiarekin. Estudioa muntatzea, beste edozein denda edo enpresa sortzea bezala, zaila da. Baina, nik esaten dudana moduan, zaila bada, baina dena posible da.

- Garestia da grabazio-estudioa martxan ipintzea?

Bai, nahiko garestia da grabazio profesionalak egiteko estudioa sortu eta prestatzea: intsonorizazioa berez garestia da eta, horri, lan egiteko ekipamendua gehitu behar zaio. Adibidez, nik estudioan nahasketak egiteko ipini dudana mahaia musika ekoizpenerako propio sortutakoa da eta berak bakarrik 8.000 euro balio

du. Mikrofonoak, aurikularrak, mikro-aurretizkoak, ordenagailua, pantailak, gertuko-barrutiko monitoreak... Denera 25.000-30.000 euroko inbertsioa egin dut. Horrela esanda badirudi ez dela gehiegi, baina kontuan izan hau ez dela Londresen dagoen estudioa, munduan dagoen estudioarik handiena. Handiena eginez gero, 100.000 euroko inbertsioa beharko nuke.

- Nola funtzionatzen du estudioak?

Talde edo abeslariak nire estudioan euren grabazioak egin eta diskoak ekoiztea da nire asmoa eta, horrez gain, edozein tokitan kontzertuak emateko laguntza eskaintzea. Estudioa astelehenetik barixakura dago zabalik. Erabili nahi duenak hona etorri eta grabatu nahi duena azaldu behar digu. Guk aurrekontua eman eta, onartuz gero, grabaketa egiteko eguna eta ordua ipintzen dugu, lanean hasteko. Horrez gain, beste hainbat zerbitzu ematen dugu: irratirako kuñen grabazioa, maketa eta CD grabazioak, filmeen bikoizketa... Informazio gehiagorako www.studioplayrecords.com helbidera jo daiteke. Jendea estudioa ezagutze- ra, konpromezu barik, etortzera animatu nahi dut.

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdia.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkoholiko Anonimoak	629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapata eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduro. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapata: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapata: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapata: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. **ERMUÑA-MENDARO.** Asteleheneetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapata-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era orduro. **MENDARO-ERMUÑA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapata-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era orduro.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.18. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUÑA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara orduro.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

EURI ARINA

ZAPATUAN hodeiekin jarraituko dugu, baina euri gutxiagorekin. Hala ere, han-hemenka prezipitazio arinak botako ditu. Iparraldeko haizearen eraginez, tenperaturak gradu pare bat behera egingo du. **DOMEKAN** antzera jarraituko du eguraldiak, baina laino gutxiagorekin.

16 barixakua

EZKER ABERTZ. ASTEA

18.00.- Pegatina erakusketa Montekasinoko parkean. **19.30.-** Presoen enkartelada (Untzagan). 'Kaiolatik at' DVDaren aurkezpena. Hitzaldia: 'Eibarko gazteak eta etxebizitza'.

ABONTZAKO JAIK

18.30.- (Ikus 9. orrialdea).

DIA DAS LETRAS

19.00.- (Ikus 9. orrialdea).



17 zapata

ARGAZKIL. TAILERRA

10.00.- Alfredo Divasson. 'Fotografia en 3D: Anaglifos'. Portalean.

TIRO TORNEOA

11.00.- Eibarko XIII. Txapelketa, airezko karabinarekin. Hezkuntza Esparruan.

ABONTZAKO JAIK

11.00.- (Ikus 9. orrialdea).

DIA DAS LETRAS

11.30.- (Ikus 9. orrialdea).

EZKER ABERTZ. ASTEA

12.00.- Umeendako pailazoak. **13.00.-** Ekitaldi politikoa. **13.30.-** Trikipoteoa. **14.30.-** Herri bazkaria. Bazkalostean, kantu paperak, musika, jolasak... **18.30.-** Kantaldi-sorpresa. **20.00.-** DJak. **00.00.-** Jaiaren amaiera. Montekasinoko parkean.

TALLARRA GAZTETXEA

14.30.- Barazki jantoki makrobiotikoa. **17.00.-** Valentziako Cabañal auzoari buruzko hitzaldia. **22.00.-** Kontzertua: El Trono de Judas, DSM-5, Golpe de Estado. DJ Norman Duval. Tallarra gatzetxean (Asua Errekan).

KONTZERTUA

20.00.- Sostoa eta Lartaun abesbatzen kontzertua, 1908ko Lore Jokoak gogoratzeko. Sarrera: euro 2. Coliseoan.

18 domeka

TXIRRINDULARITZA

09.00.- X. Arrate Zikloturista Igoera. Irteera T. Etxebarriatik. Izen-ematea: Proba hasi baino lehen (12 euro).

MUSEOEN EGUNA

10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara.- Ate Irekien Eguna. Sarrera doan. Maisu Grabatzaileak museoan, erakustaldia (10.30-12.30). Arkatza Museoan tailerra: 6-9 urteko umeentzat tailerra. Eibarko Armagintzaren Museoan (Portalean).

ABONTZAKO JAIK

11.00.- (Ikus 9. orrialdea).

DIA DAS LETRAS

11.30.- (Ikus 9. orrialdea).

KONTZERTUA

13.00.- Usartza txistulari bandaren kontzertua. Untzagan plazan.



20 martitzena

IKASTEN

10.30 eta 16.00.- Nekazari-tza ekologikoari buruzko ikastaroa. Portalean.

ESKOLART. ANTZERKIA

15.00.- 'Marco Polo' (Teatro Teloncillo, Valladolid). Hezkuntza Esparruan.

AMAÑAKO DANBORRADA

19.00.- Amañako danborradarako entseguak (umeak). Amañako ikastetxean.

LIBURU AURKEZPENA

19.00.- Juan Sánchez Vallejoren 'Senectud, divino tesoro...' liburuaren aurkezpena. Portalean.

EIBAR ZINE KLUBA

21.30.- 'Naturaleza muerta' (Zuz: Jia Zhang Ke). Sarrera: 3'50 euro. Coliseoan.

21 eguztena

ESKOLART. ANTZERKIA

15.00.- Eskolabarri (Ermua) eta La Salle-Isasi (Eibar). Hezkuntza Esparruan.

EIBAR CANCHA

18.00.- 'Payaseando', Zipi pailazoarekin eta Minola magoarekin. CANren egoitzan (Errebal, 22).

HARIXA EMOTEN

19.00.- 'Mila eta bat gauen gauak' tertulia. ...eta kitto! Eus-kara Elkartean (Urkizu, 11).

DANBORRADA

19.00.- Umeen entseguak. **20.00.-** Nagusien entseguak. Amalur ohian.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Entsegua. San Andres elizako lokaletan.



22 egutena

SORMEN IKASTAROA

09.15/14.15.- 'Nola bultzatu sormena zure organizazioan', Teknikerren eskutik. Markeskuan.

ESKOLART. ANTZERKIA

15.00.- 'Batuta' (Taun Taun Teatro, Gipuzkoa). Hezkuntza Esparruan.

UMEEN BERTSO JAIALDIA

18.00.- Umeen Bertso Jaialdia. Sarrera: euro 1. Coliseoan.

HITZALDIA

19.00.- 'Los niños perdidos del franquismo' hitzaldi-debatea. Hizlaria: Montserrat Armengou. Portalean.

BERRIAK 5 URTE

19.30.- 'Berriak 5 urte' ekitaldia: Bideoa. Aurrera egiteko erronkak, Joanmari Larrairen eskutik. Mokadua. Markeskuan.

AMAÑAKO DANBORRADA

20.00.- Amañako danborradarako entsegua (nagusiak). Amaña ikastetxean.

erakusketak

Maiatzaren 26ra arte

Ian Iroshi Warrior-en argazki erakusketa.
Debegasan.

Maiatzean

Juan Angel Arrieta.
'Argia'. *Topalekuan.*

Javier Arcenillas.
'City Hope'. *Portalean.*

Gabriel Brau. 'Afrikako
Argiak'. *Portalean.*

Leize-ikerle taldea.
Portalean.

Deporreko Argazkilaritza
Taldekoen erakusketa.
*Ambigü eta Portalea
tabernetan.*

Argizaiola Saria.
Depor tabernan.

lehiaketak

Armeria Eskola Sariak

Epea: *Maiatzaren 19tik 23ra.*
Informazioa: Armeria Eskolan.

dinu-laguntzak

UEUko matrikularako

Zenbatekoa: Matrikularen
erdia.

Epea: *Maiatzaren
30era arte.*

Non: Pegoran.

ikastaroak

Fotogr. en 3D: Anaglifos

Noiz: *maiatzak 17.*

Prezioa: Doan.

Informazioa: Deporren

(www.deporeibar.com).

Izen-ematea: argazkilaritza
@gmail.com.

Discosana jaietan tailerra

Drogekin lotutako
arrikuak gutxitzeko.
Hartzaileak: Txosna eta jai
batzordeetako kideak.

Noiz: *ekainak 9 eta 11.*

18.00etatik 20.30etara.

Matrikula: Doan. Pegoran.

Epea: *Ekainak 5.*

santerak salgai

ZINEA.-

'4 meses, 3 semanas y 2 días'.

Maiatzak 27, 21.30.

'Naturaleza muerta'. *Maiatzak 20, 21.30.*

MUSIKA.-

'Lore-jokoen mendeurrena' kontzertua.

Maiatzak 17, 20.00.

Ken Zazpi. *Maiatzak 23, 22.00.*

BERTSOAK.-

Umeen bertso jaialdia. *Maiatzak 22, 18.00.*

zinemazinema

untzaga
"Speed racer"

ZUZENDARIA:

Andy eta Larry Wachowski

AKTOREAK:

*Christina Ricci, Susan Sarandon,
Emile Hirsch, Matthew Fox...*

Speed Racerrek auto lasterketetan parte
hartzen du. Bere anaia piloto historikoa
zen. Aitak auto ezinhobea sortu zuen...
Euren bizitza hori da. Royalton enpresa
handiak Speed kontratatu nahi du eta
ezetz esaten badu...

coliseo
"Naturaleza muerta"

ZUZENDARIA:


Jia Zhang-ke

AKTOREAK:


*Zao Thao, Han Sanming,
Wang Hong-wel...*

Munduko utegirik handienak Fengjie herria
ur azpian laga du. Bertako biztanleendako
eteak egin behar dituzte inguruan; Feng-
jiera joango dira Samming eta Shen Hong;
antzinako etxearen lekuan aspaldiko maita-
sun istorioak berreskuratuko dituzte...

denborapasak



Aurkitu hemen 15 ARGITALETXEREN IZENAK



Aurrekoaren
SOLUZIOA

farmaziak

16. barixakua

GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

17. zapatua

GOIZEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

18. domeka

GOIZEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

19. astelehena

GOIZEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

20. martitzena

GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

21. eguaztena

GOIZEZ **Las Heras** (Sostoarren, 20)

GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

22. eguena

GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

23. barixakua

GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

hildakoak

- **Javier Lueches Terroba.**
48 urte. 2008-V-7.
- **Gregorio Martín Insausti.**
45 urte. 2008-V-8.
- **Mª Angeles Arcalís Redondo.**
79 urte. 2008-V-9.
- **Consuelo Amutxastegi Urzelai.**
75 urte. 2008-V-10.
- **Victor Uribezubia Narbaiza.**
80 urte. 2008-V-10.
- **Mª Antonia Orgaz Bueno.**
65 urte. 2008-V-11.
- **Jose Morán Gesteira.**
80 urte. 2008-V-12.
- **Alberto Arriola Areitio.**
76 urte. 2008-V-12.
- **Ana Amelia Polanco Herrero.**
84 urte. 2008-V-13.

jaiotakoak

- **Nara Fernández Fernández.** 2008-V-1.
- **Manex Cordoba Alberdi.** 2008-V-5.
- **Aner Manero Arco.** 2008-V-6.
- **Iratí Martín González.** 2008-V-9.

ETXEBIZITZAK

- Errebal kalean pisua salgai. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 642-098218.
- Elgetan borda salgai. 2.200 m²ko lur sailarekin. Tel. 678-980204.
- Santiañes, 22 - 3. eskuman pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Dena kanpora begira. Eguzkitsua. Gasa. Igogailua. 39.000.000 pta. Tel. 619-547188.
- Etxea behar da alokairuan. Tel. 662-239392.
- Soraluzeko Rabal kalean pisua salgai. 64 m². Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Tel. 658-339709.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. 3 logelakoa. Erreferentzia eta abalak. Tel. 677-074051.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 646-662911.
- Salamancan etxea konpartitzeko ikasleak behar dira datorren ikasturterako. Tel. 676-081717.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-061112.

LOKALAK

- Lokala hartuko nuke alokairuan, ahal bada 300 euro baino gutxiago ordaintzeko. Tel. 671-069792.
- J. Gisasola 8an ileapaindegia izandako lokala traspasoan. Berritua. Edozein negoziatorako egokia. Tel. 943-700257.

SALEROSKETAK

- Bizikleta salgai. Bi aldiz erabilia. Osa garri onekin. Merke. Tel. 653-717875.
- Vending negozioa salgai (14 makinarekin). Prezio interesgarria. Hilean 1.500 euroko etekina lorgarri. Tel. 638-479909.
- Porlanezko bigarren eskuko amasadore eroso nuke. Tel. 943-701082.
- Musika ekipoa salgai. MCD-201 modelo, mando eta bozgorailu birekin. 150 euro. Deitu 20.00etatik 22.00etara. Tel. 943-530667.

AUTOAK

- Opel Omega salgai. Gasolina. Oso merke. Aire egokitua eta irati-kasetea. Asegurua eta udal zerga ordainduta. Beti garajejan. Tel. 610-395630.
- Opel Vectra GT 2.0 salgai. 130cv. AIT eta udal zerga ordainduta. 1989koa. Tel. 637-704715. Ander.
- ADRIA karabana salgai, abantzearekin. Barruan gordeta egon da. Tel. 659-621308.
- Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaia-tzeko 5 plaza, 4 lo egiteko. Sukalde guttiz ekipatua, igo daitekeen sabaia, berogailu estatikoa eta jarleku giratorioak. Dutxa, toldo eta bizikletak eta eskiak eramateko. 75.000 km. 2003 urtekoa. Egoera onean. Tel. 658-710899 edo 685-725840.

BESTELAKOAK

- Apirilaren 30ean autobus geltokian bi-deokamara zinta galdu zen, familiarteko erreportaiarekin. Aurkituz gero, deitu. Tel. 943-121956.

LANA

- Kamarera/o gaztea behar da terraza batean lan egiteko. Tel. 600-648823. Jose Luis.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 676-244793.
- Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 616-397348 edo 943-029373. Noma.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Orduka edo aste osorako. Tel. 650-611415.
- Kamarera/o behar da jatetxe batean eguneroko lan egiteko. Tel. 943-121262.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna edo externa moduan. Tel. 616-230814.
- Neska eskaintzen da 13.00etatik 16.00etara garbiketa lanetarako. Tel. 679-578511.
- Neska gaztea eskaintzen da 17.00etatik 20.00etara lan egiteko. Tel. 697-668920.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 620-336722.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 943-530718 edo 679-095634.
- Gizona eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 669-559011.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan umeak zaintzeko. Tel. 671-972733.
- Emakumea eskaintzen da pegorak edo lokalak garbitzeko. Tel. 696-542421.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Asteburuak barne. Tel. 662-365609.
- Neska eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-423898.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 647-044031. Marian.
- Mutila eskaintzen da peoi lanerako. Tel. 605-410423.
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanetarako. Tel. 943-742201 edo 652-715908.
- Neska eskaintzen da uztailean umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 645-702768.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 629-945799. Isabel.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-435056.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 626-865691.
- Neska eskaintzen da 09.00etatik aurrera taberna batean lan egiteko. Tel. 607-713873.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta kamarera lanetarako. Tel. 607-713873.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-250527.
- Neska euskalduna uztailean umeak zaintzeko prest. Tel. 943-530485.
- Emakumea eskaintzen da arratsaldean edozein lanerako. Tel. 666-815008.
- LH eta DBHko irakasleak klase partikularrik ematen ditu. Udan barne. Tel. 676-181138.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 605-772606.
- Neska euskalduna behar da arratsaldean umeak zaintzeko. Tel. 943-121499.
- Kamarera eta sukaldari-laguntzailea behar dira asteburuetarako. Esperientziarekin. Tel. 943-121262.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-435056.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. 09.30etatik 16.00etara. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Magisteritzako ikasle eibartarra umeak zaintzeko prest. Tel. 677-108554.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 686-234612.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Egunez edo gauez. Tel. 671-476869.
- Medikuntzan lizentziatua behar da Eibarko zentro psikotekniko baterako. Orduka. Tel. 943-208600 edo 667-995929. Mari Asun.
- Mutil gaztea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile, kamarero edo artz lana egiteko. Tel. 686-545884.
- Ingeniaritza Kimikoan lizentziatuak klase partikularrik emango lituzke DBH eta Batxilergoan. Tel. 685-797220. Jaione.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

Iragarkiak ipintzeko:
943-200918 (Marisol).

...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak ANE gure etxeko printzesari, astelehenean bost urte beteko ditutu-eta. Familixaren partez.



KATTALIN Arrasate Lasa, gaur urtebete egiten dozulako, zorionak gure potxola. Aitxitxa eta amamaren partez.



Zorionak, ENEKO Cajas Gabilondo, hareñegun, hillaren 14an, hamaika urte bete zenduaz-eta. Etxekuen partez.



ARANTZA ETA ARRATE DENDAN LANEAN.

ELGOIBARKO IRIONDO ALTZARI DENDARA JOANEZ GERO ALTZARIAK BAINO ASKOZ GEHIAGO AURKITUKO DUZUE. IZAN ERE, ALTZARI MUNDUAN ESPERIENTZIA HANDIA DUTE IRIONDO ALTZARI DENDAN, **55 URTEKO IBILBIDEAK** ARGI LAGATZEN DUEN MODUAN. ETXEBIZITZAREKIN ZERIKUSIA DUEN GUZTIA ESKU-ESKURA IPINIKO DIZUTE IRIONDON ETA ALTZARI ETA DEKORAZIOAREKIN IZAN DITZAKEZUN ZALANTZAK ARGITZEKO OSO BALIAGARRIA EGINGO ZAIZUE HANGO PROFESIONALEN LAGUNTZA.

ARRATE IRIONDO (Iriondo altzariak):

“Etxea janzteko behar den guztia, zerbitzu osoa eskaintzen dugu”

- ZER ESKAINTZEN DIOZUE BEZEROARI?

Etxea janzteko behar duen guztia daukagu, era guztietako altzarietan eskaintza oso zabala daukagu-eta. Logela, egongela eta etxeko beste edozein txokorako altzariak, horma-armairuak, oheak, koltxoak, burkoak... beharrezkoa den guztia, azken batean. Altzarien mundua oso zabala da gaur egun, hamaika aukera dago, eta gu merkatuan dagoen eskaintza zabal horretara moldatu gara, gure bezeroei zerbitzurik onena eskaintzeko asmoarekin.

- HORREN ESKAINTZA ZABALAREKIN, BAT BAINO GEHIAGO ERDI GALDUTA ETORRIKO ZAIZUE.

Etxe barruan edozein aldaketa egin nahi izanez gero, guk zerbitzu osoa eskaintzen dugu: planoak eginez eta altzarien kokapena plano gainean diseinatzuz, bezeroari aholkuak emanez eta prozesuaren amaierara arte dena pertsonalki gainbegiratzuz. Koloreak, argiztapena eta bezeroari ihes egin diezaioketen xehetasun txikiak zainduduz.

- ALTZARIETAN ESTILO ETA PREZIO ESKAINTZA ZABALA DAGO, EZTA?

Hala da, oso aukera zabala dago, gustu eta poltsiko guztietara egokitze modukoa. Jende gaztearengan pentsatzen euren aurrekontuan sartzen diren eta euren gustuekin bat datozen altzariak baditugu. Eta, jakina, bezero guztiei arreta eta zerbitzu berberak ematen dizkiegu.

- ETXEA JANZTEAK GASTU HANDIA DAKAR. ZELAKO ERRAZTASUNAK ESKAINTZEN DITUZUE?

Ordainketari dagokionez, bezeroaren premiatarra moldatzen gara. Bestalde, erakusketan daukagun altzarietan ESKAINTZA handiak egiten ditugu urte osoan zehar.

- ATSEDENA GARRANTZITSUA DA GURE ETXEETAN. ZER ESKAINTZEN DUZUE ARLO HORRETAN?

Bai, hala da. Atsedena osasunaren sinonimo dela kontuan izanda, gure dendako erakusketan arlo horri bereziki eskaintako txokoa prestatu


dugu, bezeroari merkatuan dagoen eskaintza zabala ezagutu eta probatzeko aukera eskainiz: ohe eta besaulki artikulatuak, koltxoak (latex-ekoak, viscolastikoak, muelledunak), kutxatza-oheak...

- ZEIN ORDUTEGI DUZUE?

Astelehenetik barixakura, goizez eta arratsaldean zabaltzen dugu, 09.30etatik 13.00etara eta 14.30etatik 20.00etara eta zapatuetan, berri, goizez bakarrik. Dena dela, ordutegi horren barruan norbatak ezin badu etorri, aldez aurretik gurekin berba egin eta ordutegitik kanpo hitzordua egiteko aukera badago.

ORDUTEGIA:

Astelehenetik barixakura 09.30/13.00 eta 16.30/20.00 / Zapatuan 09.30/13.00



Iriondo

Santa Ana, 4-6 -Elgoibar-
943741234

mueblesiriondo@euskalnet.net

GREMIOEN GIDA



ANTENAK

BALATZ S.L.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

AROTZAK

ulmar
S.L.
metalezko
eraikuntzak

metalezko
eraikuntzak
aluminiozko
eta pvc-ko
aroztegia

ulmar, s.l.
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

ERREFORMAK

Obra gauzatze proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Behe errehabilitazioa etxeetan
Etxeetako errehabilitazioa
Iatxadetako errehabilitazioa

AILA
PROIEKTUAK

ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 ailaproiektuak@hotmail.com

Tel. 943 20 04 43 • Faxa. 943 20 14 11
www.casanella.com J. Gisasola, 16 behea

ERREFORMAK BAINUAK
PROIEKTUAK ALTZARIAK
SUKALDEAK DEKORAZIOA

CASANELLA

AROTZAK

IMAR AROZTEGIA

- Barruko atek eta blindatuak
- Oholtza eta parket mugikorak
- Armairu enpotratuak eta neurriak
- Sukalde eta elektrodomestikoa

Olaso, 15
55-A-1 pabilioia
ELGOIBAR

Tfnoa.-Faxa: 943 53 14 71
Mobila: 609 054 978 / 646 905 564

ELEKTRIZITATEA

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD
I B A R S.L.

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behe Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

**ESTUDIOS
ARRILLAGA**

Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar-
Tel. 943 20 06 98

ROSARIO 15 -Elgoibar-
Tel. 943 74 40 19

GARBIKETAK

escudero
INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

IÑAKI

Egurrezko mota Ateak - Tarimak
guztietako lanak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntiaia eta
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

TREJO
GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

*Garbiketa eta
mantenimendua*

EN Aroztegia □ Ebanisteria
□ Obra aroztegia

ARPINTERIA NARBAIZA S.L.

Egiturak, barruko eta kanpoko atek,
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

SUKALDE ALTZARIAK

ARROZTEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behe Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

• Barne apainketak
• Mantenimendu
eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



HORNIKUNTZA



**GARAIONDO
BASTIDA**

hornikuntza industrialak

Telef. 943 12 02 08
Faxa. 943 12 02 12

Barakaldo 9^{an}

KRISTALAK



ACHA
Kristaldegia

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03

ARREGI
Juan Gisasola, 2
Tel/Fax: 943 20 79 37
Mobilak: 675 70 87 52 / 670 73 61 00
MARGOLARIAK
GOI MAILAKO DEKORAZIOA

IGELTSEROAK

**JOSE MARIA IRA-
ZABAL, S.L.**



Azitain Industrialdea, 3
H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA
www.irazabal.net

PINTURAK



Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94

T. Etxebarria, 8 - behea

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Pintura
Goi mailako
dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98



Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

ITURGINTZA

INDA *iturgintza*



UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Bainu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxa: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63

Asua-Erreka, 2



**PINTURAS
ARRATE, S.L.**

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

- Nexa Autocolor
- Herberts industrial
- 3M produktuen banatzailea

SARRAILAGINTZA



Era guztietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guztietako giltzen kopiak
Trabatutako ateak askatzen ditugu

Arragueta 3

Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

**Chevrolet Epicak zoriontsu egingo zaitu.
Horrela ez bada, dirua bueltatuko dizugu.**



EPICA

Chevrolet markako edozein auto erosita, hilabete edo 3.000 kilometro daukazu egindako erosketa ona izan dela baieztatzeko. Chevrolet Epicak honako hauek ditu: ABS, EBD, ESC, 6 aire-poltsa, antipartikuladun filtro diesel, aire giroailu automatikoa, Cruise kontrola, eurlarrendako eta atzaaldeko aparkaleku sentsoa eta 16 pulgadako aleaziozko hagunak.

**EPICA VCDi
150 ZP Diesela
5 urteko garantia
20.900 eurogatik**

www.chevrolet.es

Informazioa 902 303 900

GEHIAGO DA.



CHEVROLET

Glauto Elbar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@glauto.es • www.glauto.es
Glauto Glaberria • Karabaila, 1 • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@glauto.es • www.glauto.es

Perdo baliegarria. Printzeala eta Baleria aldi berean. Epica 2.0 VCDi 170 berritasentzako (1802a, matxaketa, zanga, geroa eta promozioa berrak). Eskaintza baliegarria hilabete bukatu aita. Kontsumo minimo (l/100 km): 6,1 g. CO₂ emisioa (g/km): 169 g/kg. 5 urteko garantia: hiru urteko kontante igara eta (hiru urte edo 100.000 kilometro). Kilometroan erago ez da lehen bi urteetan aplikatuko. 2012ko 5 Garantien Legea, eta hiru bi urte gahitu behar zaidio. Chevrolet 5. Zerbitzuak eskaintzen dituzten konpainien beldintzeekin.